

TOKIKOM

2020ko ekaina | 204. zenbakia

ai!kor!

txorierriko auzoa



Kultura,
COVID-19ak
jota



ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburutegietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTOKAN TXORIERREKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horretarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

-  **4 Eretxiak**
-  **5 Editoriala**
-  **6 Laburrak eta albisteak**
-  **11 Udalak... Josu Andoni Begoña, Loiuko alkatea**
-  **12 Gurean izan da... Urbasako artzainak**
-  **14 Gaztea eta... Eider Ochoa, erasmus-a Polonian**
-  **16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
-  **18 Salto! dinamika**
-  **20 Kultura, erabat geldituta**
-  **26 Ahalegintxoa, mundua salbatzeko**
-  **28 Udal-igerilekuak, hitzordupean**
-  **30 Taldeak... Derioko Emakumezkoen FT**
-  **32 Berbalagun**
-  **34 Teknologia... Lurgida**
-  **35 Aikorrizketa... Gaztelania nagusi, pandemian**
-  **36 Sukaldaritza**
-  **37 Denborapasa**
-  **38 Agenda**



26 Ahalegintxoa, mundua salbatzeko



30 Derioko Emakumezkoen Futbol Taldea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Imanol Alvarez eta Maitane Apodaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Azaleko argazkia: Gaizka Peñafiel

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

Ostean, hotzean, hitz batean

Hausnartzea ei da filosofoaren lana, baina onartu beharra dut bizitzak horretara gonbidatu gaituen hila-bete hauetan hari ihesi ibili naizela. As-katasuna, elkarbizitza edo kontrol soziala bezalako ideiak pil-pilean, hazitegi ederra zirudien, baina mutu geratu naiz. Ez dakit biziraupen emozionalean zentratuta nengoen, edo presak eta premia hausnarketaren etsaiak direla barneratuta dudan. "Lehenik bizi, ondoren filosofatu" dio atsoititzak.

Baina bizitzak aurrera darrai eta pre-tentsio handirik gabe hasi naiz buruari bueltaka. Eta interesgarri bezain beharrezko deritzodan arrazoi instrumenta-laren kritikarekin lotu dut. Ez ikaratu; ez da izenak aditzera ematen duen bezain beldurgarria. Funtsean, arazoen aurrean irtenbiderik "logikoena" aukeratzeak plan-teatzen dizkigun konplikazioak aintzat ez hartzearen arriskuak jarri zituzten mahai gainean Frankfurteko eskolako pentsa-lariek 60ko hamarkadan. Are gehiago,

biderik zuzenenak arazo berri sakona-goak sortzen dizkigula zioten. Hobeto ulertzeko, telebistako mandoaren guda gauero pairatzen duen familia batek logela bakoitzean telebista bat jartzea litzateke auzia modu instrumental ba-tean ebaztea. Akabo gatazka. Baina aka-bo, honekin batera, akordioetara heltze-ko gaitasunen garatzea besteengandik gauza berriak deskubritzeko parada, frustrazioak gestionatzen ikasiz joateko aukera... "Zoriontasuna ez da arazorik ez izatea, arazoei irtenbideak topatzea baizik" zioen orain gutxi zendu zen Bau-manek. Arazoak ekiditea bizitza ekiditea da.

Ez dakit pandemia hau gure bizi-moduaren ondorio zuzena den, mo-mentuz ez dut horren aldeko argudio sendorik entzun. Baina gogor kolpatu dituen familiei errespetu osoz beti ere, gure bizimodua birpentsatzeko aukera paregabea dakarkigu besapean. Giza-di gisa, planetak berak jartzen dizkigu



IMANOL ALVAREZ
Filosofia irakaslea

mugak, nahiz eta guk ez ikusiarena egin. Hurbileko egunerokotasunean, antzeko zerbait, azken finean hor hasten da dena. Gizatasuna eta bizitzaren konplexutasu-na ulertzeko sinplifikatu nahi badugu, kontrako noranzkoan goaz. Arrazoimen kritikoa aldarrikatzen zuen Frankfurteko eskolak. Niri ez zait ezer hoberik buru-ratzen, eta norabide horretan ari gara pentsamenduaren presentzia txikitatik hezkuntza lege berrietan aldarrikatzen. Hausnarketa. Hartatik eskapatzen naize-nean ere, bertan bukatzen dudalako.

Esan daiteke atzerrian bizi zarenean emozio guztiak indartsuago senti-tzen dituzula. Ez da inorentzat erraza konfort-zonatik irten eta hizkuntza, ohitu-ra edo gizarte berri batera egokitzea. Ba-tzuetan atzerrian bizi eta ohitzea aldapa gogorra izan daiteke, etxebizitza, lana edo egonkortasuna aurkitu arren.

Ekainaren 20an, Errefuxiatuen Egu-na izan zen eta haien familia, lagun eta betiko bizimodutik milaka kilometrotara daudenak etorri zitzaizkidan gogora. Ez dira nahi izan dutelako atzerrira joan, bai-zik eta beharizana izan dutelako. Dena alde batera utzi behar izan dute gerra, jazarpena eta hondamen naturaletatik

Atzerrian



MAITANE APODAKA
Lehen Hezkuntzako irakaslea

ihes eginez. Hori gutxi balitz, gehienetan ez dute heldu berri diren herrialdeko hiz-kuntza ezagutzen, ilegalak direla esaten dugu eta ez daukate lan egiteko aukera handirik.

Munduko sei herrialde 'aberatsenek' munduko errefuxiatuen % 9 baino ez dute hartzen, ardura hori herrialde po-breagoen lepoan jartzen dutelarik. Bada garaia haiei "kendu" zaien guztiaz gogoe-ta egiteko eta datozenek "kentzen" digu-tenari buruzko pentsamolde berekoia alde batera uzteko.





Eskerrik asko, Arantza!

AIKOR! aldizkarian publizitate-arduradun 19 urte eman ondoren, me-rezitako erretiroa hartzeko unea ailegatu zaio gure lankide Arantzari. Langile fina izan da hasiera-hasieratik eta gogotsu egin du lan aldizkariak lehenengo urratsak egin ahal izateko eta, oztopoak oztopo, urte hauetan guztietan hilero txorierri-tarron etxera heldu ahal izateko. Ohikoa izan da Arantza auto barruan ikustea Loiuko, Sondikako, Derioko, Zamudioko, Lezamako eta Larrabetzuko enpresak, dendak, tabernak eta jatetxeak bisitatze-ko prest, euren negozioak aldizkariaren bidez ezagutzera emateko eskaintzarik onena egiteko. Autoz zein oinez, Txorierri-ko kaleetan eta industriguneetan ez ezik alboko herrietakoetan ere ibilia da, nekaezin eta aurpegiari irribarre handi batekin. Alabaina, kaleko lanaz gainera, lan handia izaten da bulegoan eta horretan ere pres-tutasun handiz aritzen izan da Arantza: fakturak egiten, kontabilitatea, soldatak ordaintzen, bulegoko material bila joaten, loteria banatzen, dirulaguntzak eskatzeko dokumentuak batzen...

Gurea komunikabide apala izanda, oso-oso momentu estuak bizi izan ditugu. Une horietan ere arduraz eta adoretz egin du lan Arantzak, eta eskatu izan zaion bai-no gehiago eman du beti. Baina Arantza batez ere lankidea izan da, oso lankide

ona, eta horrela gogoratuko dugu. Gu-taz arduratu da beti eta ez du zalantzarik izan gauza batean edo bestean lagun-tzeko orduan. Askotan taxi-gidari ibili da eta hainbat lekutara eraman gaitu bidea ez gurelako ezagutzen. Nekez ahaz-tuko ditugu "mendi-puntara" egindako bidaia horiek guztiak: izu-aurpegia guk, barre berak. Argazkilaritzari buruz gutxi jakin arren, argazki-kamera ere aldean eramaten izan du eta argazkiak atera han eta hemen behin baino gehiagotan guk ezin izan dugunean, edo guk asteburuan lan egin behar ez izateko. Bestetik, urte hauetan guztietan Arantza oso kezkatuta ibili da gure elikaduraz. Lanaldi estresaga-rrietan sarri entzun izan dizkiogu galdera hauek: Bazkaldu duzue? Zerbait ekarriko dizuet jateko?

Galdera horiek edizio-itxiera gehie-netan entzun izan ditugu eta, ziur asko, honik gora faltan sentituko ditugu. Era berean, ordenagailuarekin borrokan fal-taz konturatuko gara, haserrealdien faltaz, barreen faltaz, munduarekin borrokaldien faltaz... Arantza dagoeneko ez da egunero goizean bulegoko atean azalduko, espero dezagun sikiera noizean behin bisita egi-tea, baina beti maitasunez gogoratu dugu eta beti izango dugu lankide.

Eta berri bat hasi duzu, asko disfruta-tatu!

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-18:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotako pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenerik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

TABERNA
GAZTE

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

BASALBEITIKO
TXAKOLINA

Bizkaito Txakolina
Denominazio Jaurerria

Bizkaiko Txakolina

Goitioltza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Rallya eta triala, Zamudion

Zamudio Racing eta Real Peña Motorista Vizcaya elkarteek Zamudioko Rallya antolatu dute zortzigarren aldiz uztailaren 10erako eta 11rako. Bestalde, Zamudioko Triala 14. aldiz egingo da uztailaren 18an.

Aurtengo rallya berezia izango da: batetik, koronabirusak ezohiko egoera sortu duelako; eta bestetik, Borja Triguerosi omenaldia egingo diotelako. Triguerosi urtarilean hil zen eta, gidaria izateaz gain, laguna zen. Parte-hartzaileen zerrenda uztailaren 8an jakinaraziko da, eta hilaren 10ean autoak aztertuko dira Zamudioko Kultur Etxean eta Lehendakari Agirre plazan. Hurrengo egunean, uztailak 11, 09:00etan, rallya hasiko da.

Trialari dagokionez, proba hilaren 18an izango da 16:00etatik aurrera. Azaldu dutenez, kategoria hauek hartuko dute parte: Tr1, Tr2, Tr3, Tr4, klasikoak, jubenilak eta kimuak. Era berean, sei eremu atonduko dira: lehenengoa autobien gaineko zelaigunean egongo da; bigarrena, Usinas ibairantz doan bidean; eta gainerako eremuak ere inguru horretan izango dira. Jakinarazi duten moduan, 19:00etan harrizko *indoor* gunea egongo da Grazy Guitar tabernaren aurreko parkean.

Proba Euskadiko eta Bizkaiko txapelketetarako puntuagarria izango da, eta antolatzaileek maskara erabiltzeko eta segurtasun-arauak betetzeko deia egin diete ikusleei.

Dirulaguntza Derion, adingabeak zaintzeko pertsonak kontratatzeko

Udalak jakinarazi duenez, neurriak hiru helburu ditu: alde batetik, udalekuak bertan behera utzi direnez, familiei kontziliaziorako baliabideak eskaintzea; zaintzaileen lanaren balioa azpimarratzea; eta, gazteen artean ekonomia sustatuz, udako kontratazioak bultzatzea. Horretara 26.000 euro bideratuko dituzte.

Dirulaguntza 12 urtera arteko seme-alabak dituzten familiek eskatu ahalko dute irailean, Gertuan herritarren arretarako bulegoan. Zaintzaileak langabezia egon behar du eta, ahal den neurrian, Derion erroldatuta egon. Gainera, ezin du kontratatzaileekin ez lehenengo, ez bigarren ahaidetasun-mailarik izan. Gutxienez egunean bi orduko kontratua egin

beharko da, ekainaren 1etik irailaren 6ra bitartean, eta gutxienez astebete iraun beharko du.

Udalak zaintzaileen soldataren % 30 ordainduko du, gehienez 600 euro. Hala ere, baldintza batzuk betez gero, porzentaje batzuk gehituko dira: zaintzailea Derion erroldatuta badago, % 10 gehiago; 16 urtetik 35 urtera bitarteko gaztea bada, % 5 gehiago; eta euskalduna bada, % 5 gehiago. Hortaz, baldintza guztiak betetzen badira, laguntza % 50ekoa izan liteke. Zaintzaileen eta familien arteko harremana errazteko, Egaz Txorierri umeen zaintzaileen lan-poltsa prestatzen dabil. Informazio gehiagorako: 944 536 370 eta egaz@txorierri.eu.



**PELUKERIA
ESTETIKA
LARRABETZU**

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

Ne-apaindegia
M^a Antonia Llodio

Txoriemiko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txoriemiko etorbidea, 9-4
413. bulegoa
48160 Derio

Telefonoa eta faxa:
94 454 44 98
a.amondarain@euskalernet.net

**sarraila-denda
Txorierri**
AKTIVAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURTASUNEAN

948 038 663
625 100 800
info@cerajeriatxoriem.net
www.cerajeriatxoriem.net

Alain Pomposo Zarate
Urkioa, 4. lorja
48160 Derio

JB Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Especializatea:
Xafra-lanak
Zoruak

944522910 - 665703312 - 652772016

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Tlf. / Faxa:
94 452 29 10



BAM unibertsitate-eskolak Derion hasiko du datorren ikasturtea

Begoñako Andra Mari Irakasleen unibertsitate-eskolak Barrainkua kalean, Bilbon, du egoitza. Hori txiki gelditu da eta, beharrian akademikoei erantzuna emateko, gune berri bat eraikiko da. Horregatik, eta SIC agentziak jakinarazi duenez, unibertsitate-eskola behin-behinean Derioko Seminaria eramango da irailean. Bertan bi ikasturtez egotea espero da.

Behin-behineko egoitzaren harira, BAM unibertsitate-eskolako arduradunek

hau idatzi dute euren webgunean: "Erabat berritutako eraikin horrek kalitateko hezkuntzarako funtsezko eskakizunak betetzen ditu: garraio publikoko lotune arina bezain iraunkorra eta aparkaleku handia ere bai; baita kirol- zein ostalaritza-arloetako zerbitzuak". BAM unibertsitate-eskola elizbarrutikoa da eta Derioko Seminarioan 1973. urtetik 1993. urtera bitartean egon zen; ondoren, Barrainkua kalera eraman zen.

Txorierriko kiroldegien erabiltzaileentzako laguntzak, Lezaman

Lezamako Udalak deialdia zabaldu du 2019an Txorierriko kiroldegi batean ibili diren herritarrei dirulaguntza emateko. Zehatz-mehatz, udalak pertsona erroldatuentzako tarifaren eta ez erroldatuentzako tarifaren arteko aldea ordaintzen lagunduko du. Eskaerak uztailaren 24ra arte aurkeztu ahal izango dira udaletxean. Udalak 8.000 euro zuzenduko ditu dirulaguntzetarako.

Dirulaguntza eskatu ahal izateko, Lezaman erroldatuta egon beharko da eskaera egiten den momentuan zein kiroldegia erabiltzailea izan den unean. Eskatzaile bakoitzak dirulaguntza bakar bat jasoko du eta, zenbait kiroldegitan ibiliz gero, ordainketa handiena hartuko da kontuan. Eskabidearekin batera hauek aurkeztu beharko dira: NANaren fotokopia konpultsatua; udal- eta foru-ogasunekin eta segurantz sozialarekin zergak eguneratuta daudela adierazten duen ziurtagiria; hirugarrenen alta-inprimakia; ordainketaren ordainagiria; banakako edo familiako errolda-ziurtagiria; eta familia-liburuaren fotokopia. Informazio gehiago, udaletxean (944 556 007).



Derioko kiroldegia

TURREGOITI JATETXEA
Laurola etorbidea, 27
48180 Lailu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoiti.com

elekma
URPATZEN DUTEN ETXETREKINA ELECTRO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETXETREKINA ELECTRO TIGRA.
lehenengo mailak • Piztazirik gabeak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txorierriko etorbidea, 25-3 N • 48180 Lailu
T: 944 339 232
www.elekma.es

**hotela
jatekxtea
aretxarte**

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

**Pentsu
naturalak**

Kultura-programazioa berriro martxan



Carolina Noriega.
a: kuverproducciones.com

COVID-19ak eragindako pandemiak ezohiko egoeran murgildu gaitu eta ia lau hilabeteetan bertan behera gelditu dira kulturari eta aisialdiari lotutako ekintzak. Hala ere, "normaltasun berrira" itzulita, ordezeko ekitaldiak antolatzeaz gainera, udalak eta elkarteak pixkanaka-pixkanaka hasi dira ekintzak antolatzen. Kasu guztietan, parte-hartzaileen osasuna eta seguritatea hartuko dira kontuan. Hurrengo

lerroetan uztailerako prestatuko ekintzen berri emango dugu.

Sondikako Udalak, esaterako, aire zabaleko zinema antolatu du uztailaren lehen, bigarren eta laugarren zapatuetarako, eta zuzeneko musika, hirugarren zapatuetarako. Ekintzak Gorondagane eskolan izango dira. Derioko Udalak, bestalde, familian egiteko mendi-irteera prestatu du uztailaren 5erako eta 19rako. Hitzordua

09:00etan ipini dute frontoian. Hilaren 10ean, 22:00etan, auto-zinea egongo da BMko aparkalekuan, eta Carolina Noriegak helduentzako bakarrikzeta eskainiko du uztailaren 11n, 19:00etan, frontoian. Halaber, Duo Bolerok taldea hilaren 17an, 19:00etan, izango da frontoian, eta hilaren 18an, 22:00etan, zinema egongo da Lainomendi kalean. Hilaren 24an ere izango da zinema: 22:00etan, Aralar eta Euskalerri kaleetako aparkalekuan. Bakarrikzetan izan ezik, beste saio guztietarako izena eman beharko da. Informazio gehiago: 944 541 019, www.derikoudala.net, Gertuan arreta-bulegoa eta derioabian@derikoudala.net.

Larrabetzuko Kultur Bilguneak antolatuta, Eneritz Furyakek kontzertua emango du uztailaren 5ean, 20:00etan, eskolako aterpean. Josu Kamara kontu kontari ibiliko da hilaren 14an, 20:00etan, eskolako aterpean, eta hilaren 15ean, Jon Abrilen *Neskatoak* dokumentala ikusteko aukera egongo da eskolako jantokian. Literaturaz Berbetan ekimenaren harira, Maddi Ane Txoperenaren *Ene baitan bizi da* lana hizpide izango dute uztailaren 16an, 19:00etan, Hori Bai gaztetxean, eta Sara Zozayak kontzertua emango du hilaren 19an, 20:00etan, eskolako aterpean. Azkenik, Ana Apika ipuin-kontalariak saioa egingo du hilaren 19an, 20:00etan, eskolako aterpean. Edukiera kontrolatzeko, saio bakoitzaren aurretik izena eman behar da: 944 558 271 edo kulturbilgunea@gmail.com.

Derioztarrek aurrekontuetarako proposamenak egin ahal izango dituzte uztailaren 24ra arte

Derioko Udalak 2021eko aurrekontuetarako proposamenak egiteko epea zabaldu du. Udalak prozesua oso positibotzat jotzen du, zeren eta "udal-kudeaketarako balio handiko tresna baita, derioztarrek udalerrirako beharrezkoak diren egitasmoei eta erronkei ematen dieten lehen-tasunaren eta balioaren adierazle da eta". Horrela, bada, udalak 120.000 euro zuzenduko ditu herritarren proposamenak gauzatzera.

Aurreko urtean bezala, prozesuan Derion erroldatuta dagoen 16 urtetik gorako edozein pertsonak hartu ahal izango

dute parte. Prozesuak zenbait fase edukiko ditu. Lehenengo faseak uztailaren 24ra arte iraungo du eta horretan herritarren proposamenak batuko dira. Proposamenak Gertuan herritarren arretarako zerbitzuan edo Kultur Birikan aurkeztu ahal izango dira, horretarako dagoen formularioa erabilita. Internet bidez parte hartzeko aukera ere badago: inprimakia www.derikoudala.net webgunean online bete daiteke, edo deskargatu eta partaidetza@derikoudala.net helbide elektronikora bidali.

Bigarren fasea, bestalde, uztailaren 25etik irailaren 22ra arte izango da. Fase

horretan proposamenen bideragarritasuna aztertuko da: herritar guztien interesa kontuan hartu beharko dute, ekonomiko-ki bideragarriak izan eta herritarren bizikaltatea edota udal-zerbitzuak hobetu.

Egitasmoak irailaren 28tik urriaren 2ra bitartean bozkatuko dira. Bozketa udal-webgunearen bidez egingo da, baina bitartek ez duten herritarrak herritarren arretarako zerbitzura eta Kultur Birikara joan ahal izango dira bozketa hango langileek lagunduta egitera. Emaizak urriaren 14an jakinaraziko dira udal-webgunean zein Udalaren ohar-taulan.

ILUNTZE SOINUAK 2020

Baserri Antzokiko terrazan

UZTAILEKO BARIKUETAN

10 BITXUIN

Euskal kantanak, mexikanadak, baladak

17 BELATZ

Rock

24 RIKI, ZUBI ETA URKO

Rock bertsioak

20:00 etatik
aurrera

Baserriko
LAPIKO

BETIKO SUKALDARITZA

%100 NATURALA



**ONDO JATEA.
INOIZ BAINO ERREZAGO!**

Eraman ezazu etxera edo
jantokira guk egindako
platerak ontzi eroso batean.

Sondikak osasun- eta asistentzia-langileei egin die omenaldia

Herriko jaietan, Sondikako Udalak herriaren eta bere balioen alde lan egiten duten pertsonak eta taldeak omendu ohi ditu. Aurten, San Joan ospatzeko, ordezkotzaz antolatu ditu eta horien baitan osasun-eta asistentzia-langileen lana aintzat hartu du jendaurrean. Sektore horien bien izenean, saria Sondikako osasun-zentroko eta Larrabarrena zahar-etxeko langileek hartu dute.

Saria Txelo Ferreres osasun-zentroko arduradunak eta Ainara Solar Larrabarrenako zuzendariak hain zuzen ere hartu zuten osasun-zentroko atarian egin zen ekitaldian. Bertara Sondikako elkartearen eta gizartearen ordezkariak ere hurbildu ziren. Ekitaldiaren aurretik, minutuko isilunea egon zen pandemiaren biktimen oroimenez.

“Tragedia honetan, lehen leerroan izan zarete. Eredutzat zaituztegu, konfiantza osoz zuen eskuetan ipini gara, arratsaldeko 8etan txalotu zaituztegu egunero, ordutegia kontuan hartu barik egin duzuen esfortzua eskertu dizuegu, baina batez ere zuen ausardia miresten dugu”, esan zien talde biei Xabier Zubiar Sondikako alkateak.

Bestalde, aipatu beharra dago, ekitaldian, osasun-krisian sortutako gizarte-ekimenak ere gogora ekarri zirela, hala nola maskarak josi zituen Orratzaren kluba, boluntarioak, herriko nagusiei deiak egin zizkieten lagunak, osasun-langileak hartu zituen Sondikako Hotela, farmazia eta saltokiak.

Arrizabalaga, pilota mistoaren txapeldunordea

Ekainaren azken domekan, pilota mistoren lehen finala jokatu zen Iruren. Olatz Arrizabalaga (Olarreta Larrabetzuko pilota elkarte) eta Gentzane Aldai Leire Garairen eta Olatz Ruiz de Larramendiren aurka aritu ziren bertan, eta, Arrizabalagak partida ona egin zuen arren, irabazle Garai eta Ruiz de Larramendi izan ziren (14 eta 22).

“Ukondoz ukondo euskaraz ze ondo!”

Hori da Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak aurtengo Lagatzu Egunerako antolatu duen leloa. Izan ere, euskara elkarteak 20 urte daramatza Euskara Eguna ospatzen, eta, COVID-19a egonda ere, aurten ez da salbuespena izan. Euskaraz bizitzeko gogoia adierazteko, Lagatzukoek herritarrei bideoak bidaltzeko eskatu die eta elkarteek zein banakoek grabatutako hainbat bideo jaso dituzte. Bideoak gizarte sareetan eta aikor.eus webgunean ipini dira ikusgai.

Bideoetan denetarik dago. “Kantak, aurreko urteetako argazki-galeriak, bertsoak... Sormenez betetako ekarpenak egin dizkigute eta ziur gaude harridura

sortuko dutela, normalean ikusten ez diren gauzak ikusteko aukera izango dugu-lako”. Betiko moduan, herriko lagunek eta elkarteek Lagatzu Eguna-Euskal Jaiarekin egin dute bat, eta antolatzaileak poz-pozik agertu dira zamudioztarren atxikimenduari. “Herriak urtero adierazten digun babesa mirestekoa da: «eskerrik asko» baino ezin diegu esan”.

Bestalde, Lagatzukoek herria girotu nahi izan dute eta, horretarako, balkoietan eta leihoetan elkartearen banderak ipintzeko deia egin zieten zamudioztarrei, eta ekainaren azken zapatuan Lagatzuren zapia edota kamiseta janztera animatu zituzten.



“Loiu sozialki eta ekonomikoki suspertzeko ordua da”

Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak adierazi duenez, udal-dirulaguntzak eta beste administrazio batzuek emandakoak bateragarriak izango dira. Itxita izan den establezimendu bakoitzak 1.000 euro jasoko du; eta zabalik egon arren, fakturazioa gutxienez % 75 murriztu duenak, 800 euro. Autonomoek, bestalde, 700 jasoko dute jardura itxegatik, eta 500 euro, fakturazioa murrizteagatik.

Loiu On! Plana 22 jardura-ildo estrategikotik osatzen dute udalerria hainbat arlotan biziberritzeko. “Neurri horietako batzuk jadanik ezarri dira. Adibidez, Loiu Bizi tresnaren bidez, herriko adin guztiak bisitatu genituen euren egoera ezagutzeko, eta maskarak banatu genituen herritar guztien artean. Gaur egun, beste neurri batzuk ezartzen gabiltza, hala nola zerga-salbuespenak, gizarte-laguntzak handitzea eta udal-emakida duten lokalen alokairua ez kobratzea. Datozen asteetan eta hileetan ere hainbat ekimen ipiniko dira martxan, batez ere ekonomia suspertzeko. Izan ere, indarrak batu behar ditugu krisi ekonomikotik irten ahal izateko”.

Begoñaren esanetan, udalak ahalegin handia egingo du ostalariei, merkatariei eta autonomoei laguntzeko. Esaterako, 2020an ez da terrazei lotutako zerga kobratuko, eta udalak zerga hori 2021ean ere ez kobratzeko konpromisoa hartu du. Hala ere, terrazek leku handiagoa hartu ahalko dute aurretik izandako mahai-kopuru bera izan dezaten.

Tokiko kontsumoa sustatzeko, urtean antolatzen diren ekintzez gainera –azoka gastronomikoa, putxeren txapelketa eta autoen kontzentrazioa kasu–, loiuztarren-

JOSU ANDONI BEGOÑA | Loiuko alkatea

Aireportuak bitan zatitzen du Loiu eta alde bietan dendak, tabernak eta jatetxeak daude. Hogeitabat establezimendu dira eta herritarrentzat ez ezik txorieritarrentzat ere sortzen dute enplegua. Udalak Loiu On! suspertze plana onartu du eta horren barruan diru-funts bat sortu da denda txikiei, ostalariei eta autonomoei COVID-19ak sortutako krisiari aurre egiten laguntzeko.



tzat eta txorieritarrentzat ez ezik Bilbo Handiko biztanleentzat ere erakargarriak izan litezkeen ekitaldiak garatzen ahaleginduko da udala. Bestetik, bonoloius-ak aterako dira lehen aldiz. Hogeita hamar euroko 1.000 bonu banatuko dira herriko establezimenduetan gastatzeko: erosleak 20 euro ordainduko ditu eta gainerako 10 euroak udalak ipiniko ditu. Horri lotuta, aipatu beharra dago konfinamenduan egindako txapelketa guztien sariak nahiz datozen asteetan antolatuko direnenak bonoloius-etan emango direla. “Loiuren ordua da, bertoko bizilagunena, eta Loiu sozialki eta ekonomikoki suspertzeko ordua”.

Kontsumoa dinamizatzea

Hurbileko merkataritzaren eta zerbitzuen balioak azpimarratzeko publizitatekanpaina ere egingo du Loiuko Udalak, eta establezimendu guztiak ireki ondoren hainbat egitasmo sustatuko ditu tokiko

kontsumoa dinamizatzeke eta sustatzeko; egitasmo horietako bat lehen aipatutako bonoloius-ak izango dira. Era berean, udalaren gobernu-taldeak 2021ean tasak, zergak eta prezio publikoak bere horretan uzteko proposamena eramango du osoko bilkurara.

“Loiu herri bizia eta dinamikoa izateko lanean ari gara. Horren harira, sobera ezagunak dira herrian dinamizatzeke –eta beraz, hainbat sektoretan eragin zuzena izan dezaten– azken urteotan abian jarri ditugun ekimenak. Merkatariek eta ostalariek ere oso balorazio positiboa egiten dute. Herri aktibo bat izatea pozik egoteke modukoa da, eta herritarrek ekintzetan parte hartzea, ekintzok Txorierriko, Bilbo Handiko, Bizkaiko eta inguruko probintzietako lagunak erakartzeko trankzio-motorra baitira. Bizilagunei, merkatariei, ostalariei eta autonomoei laguntzen jarraitu behar dugu, eta ildo beretik lan egin”.

*Itxita izan diren
establezimenduek 1.000
euroko dirulaguntza
jasoko dute, eta
autonomoek,
700 eurokoa*

“Ohitura batzuk ez lirateke inoiz desagertu behar”

URBASAKO ARTZAINAK

Carlos Aramendiak eta Idoia Jimenez de Bikuñak Urbasako larreetan gobernatzen dute 400 buruko artaldea. Artzainek Idiazabal jatorri-deiturako gazta ere egiten dute eta ekainean euren produktuak ekarri zituzten Nekazamudio azokara. Senar-emazteak poz-pozik irten ziren Txorieritik, oso gustura egoteaz gainera, gazta guztiak saldu zituzten eta.

t : Itxaso Marina Ondarroa / a: Juanan Diez

Aramendia artzain familia bateko laugarren belaunaldia da, eta, amaren aldeetik, Jimenez de Bikuñaren aitita-amamak ere artzain ibili ziren. “Gurasoek behiak eta txerriak zituzten, baina ardirik ez”, azaldu digu emakumeak. “Iruñeko ospitalean lanean nabilela ezagutu nuen Carlos eta orain dela 25 urte Urbasara etorri nintzen berarekin bizitzera. Seme-alaba bi ditugu, eta badirudi semeak familiaren ogibidearekin jarraitzeko asmoa duela. Guri, hala ere, ez zaigu ideia gustatzen, artzainaren bizitza oso gogorra delako, batez ere bikotekiderik ez baduzu”.

Urbasako Parke Naturalean hiru artzain-familia bizi dira eta horietako bat da Aramendia eta Jimenez de Bikuñarena; antzinako artzain-txabola batean bizi dira. Ardi-esnea erabilia, familiak hiru produktu ekoizten ditu artisau-eran: gazta naturala, gazta ketua eta gazta zaharra (gazta-krema). Produktuak Arratondo izenarekin merkaturatzen dituzte. “Ekoizpenaren zatirik handiena txabolan bertan egiten dugu, baina orain dela 10 urte gaztandegi txiki bat atondu genuen Eulaten dugun etxe zaharrean. Urtean 3.500 kilo gazta inguru ekoizten ditugu”. Bestalde, senar-emazteak Artzai Gazta elkarteko kideak dira.

Urbasara perretxikotara joaten direnean, Zizgorri elkarteko Zamudioko kideek Aramendiaren eta Jimenez de Bikuñaren txabolan hartu ohi dute hamaketakoa. “Lezamako mutil batek gazta erosten digu eta beraren bitartez ezagutu genuen elkar. Aurten, COVID-19aren eraginez, txabolaraino hurbiltzeko zailtasunak izango zituztela pentsatu genuen, eta,

produktua etxera eramateko zerbitzua eskaintzen hasiak garenez, deitu genien Zamudiora hurbildu gintezkeela esateko. Eurek Nekazamudio azokara gonbidatu gintuzten eta pozik onartu genuen gonbidapena”. Zamudiora beldur apur batekin abiatu ziren arren, esperientzia erabat positiboa izan zen. “Herriko ekoizleek laguntza handia eman ziguten eta oso atseginak izan ziren. Halaber, eramandako gazta guztiak saldu genituen: 80 bat whatsapp-aren bidez egindako enkarguak izan ziren, eta horietaz gainera, beste 40 bat eraman genituen. Benetan, eskertzen dugu”.

Kontatu digutenez, Urbasako artzainek lotura dute Txorierriarekin. “Carlosen aitita eta aita transhumanteak ziren: lehenak 75 urtean eraman zituen ardiak Urbasatik Larrabetzura; eta bigarrenak, hainbat urtetan Gatikara. Urbasan hotza hasi bezain laster, txabolako tramankulu guztiak biltzen zituzten eta ardiak Bizkai aldera eramaten zituzten. Bizkaian sei hile ematen zituzten urtero, eta aitagarrebak esaten zuen nafarra bazen ere bere beste erdia bizkaitarra zela. Bizkaia herri handia zela esaten zigun nostalgiaz. Nolanahi ere, hainbeste errepide egin izanak asko mu-





gatu zuen: bidea bera ere ez zuela ezagutzen esaten zigun. Erretiroa duela 30 urte hartu zuen eta garai hartan gauzak aldatzen hasi ziren: ardiei pentsua ematen hasi zen eta, ondorioz, larreen menpe egon beharra desagertu zen”.

Administrazioaren trabak

Jimenez de Bikuñaren hitzetan, sektorean ordezkioak egon badaude, alabaina, administrazioak trabak baino ez ditu jartzten. “Gure lana ez da bakarrik ardiak makil bat erabiltza gobernatzeko: paper pilo bat bete behar dira. Hortaz, gaur egun semea ezin da bera bakarrik ogibidean hasi, aitzak bere garaian egin zuen moduan. Paper horiek guztiak bete behar izatea kenderuko baligute, oso mesedegarria izango litzateke”. Orobat ezinbestekotzat jotzen du administrazioak ekoizle txikiari laguntza gehiago ematea. “Azken batean, ingu-

*“Carlosen aitak
75 urtean eraman
zituen ardiak Urbasatik
Larrabetzura; eta
aitak, hainbat
urtetan Gatikara”*

*“Tokiko produktuaren
aldeko kontzientzia
apur bat sortzen ari
den arren, oraindik bide
luzea dugu aurretik”*

rumena zaintzen dugu eta hainbeste aldiz aipatzen duten jasangarritasuna bultzatzen dugu. Saltzeko plazak ere utzi behar dizkigute, eta atzera begiratu eta, nahiz eta garaiak aldatu diren, lehen funtzionatzeko zuena gaur egunera ekarri. Izan ere, ohitura batzuk ez lirateke inoiz desagertu behar”.

Artzainak prezioen arazoa eta tokiko produktua erostea ere azpimarratu ditu. “Nekazamudio azokaren filosofia asko gustatzen zait. Lizarran horren moduko azoka bat dugu tokiko produktuaren alde egiteko eta jendeak baserritarri erosi behar diola kontzientziatzeko; bestela, desagertu egingo ginatkeelako. Egia esan, kontzientzia apur bat sortzen ari da, baina oraindik bide luzea dugu aurretik. Administrazioak, esaterako, hitz polit asko esaten baditu ere, ateak ixten dizkigu gero”.

ZAMUDIO
Loteria Nazionalea

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

RUBÉN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizaola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37"N

www.gaminiz.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA

Nerea Pedrosa Cole, 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

t: Itxaso Marina / a: E.O.

Nola itzuli zinen Poloniatik?

Espainiako enbaxadak antolatutako hegaldian. Bidaia luzea izan zen: ni Krakovian nengoen eta trena hartu behar izan nuen handik Varsoviara joateko (hiru ordu); Varsovian, hegazkina hartu nuen Madrilera (beste hiru ordu), eta trena, Madriletik Bilbora (bost ordu). Zortea izan nuen, hegazkin-txartela ordaindu ahal izan nuelako; lagun batzuek, berriz, autobusez itzuli behar izan zuten.

Etxera etortzeko gogorik baze-nuen?

Bada, egia esan, ez: oso gustura izan nintzen bertan. Gainera, etxera itzuliko ginen berria eman zigutenean, asteburuko bidaia batean genbiltzan. Handik egun bira hegazkina hartu behar genuela jakinarazi ziguten; beraz, apartamentura heldu bezain laster badaezpada erdi prest genuen maleta egiten bukatu behar izan genuen. Bestalde, oso lagun onak egin ditut Polonian. Ziur asko, erraz ikusi ahalko ditut Euskal Herrikoak, baina zailtasunak izango ditut, esaterako, Valentziako eta Bartzelonako lagunak berriro ikusteko. Pena ematen dit horrek.

Zergatik erabaki zenuen Polonian geratzeara?

Hango egoera hemengoa baino hobea zelako: kutsatu eta hildako gutxiago egon dira. Nire ustez, Poloniak Espainiak baino lehenago hartu zituen neurriak; adibidez, Espainian unibertsitateak itxi zirenerako Polonian itxita zeuden. Dena dela, erabakia ziurgabetasun handiz hartu nuen, ez bainekien zer gerta zitekeen. Apartamentuan lau lagun izan ginen: bik etxera itzultzea erabaki zuten; beste biok, bertan gelditzea.

Polonian ere etxean gelditu behar izan zenuten. Nolakoa izan zen konfinamendua?

Etxean hilabetez izan ginen eta bakarrik ateratzen ginen erosketak egitera

“Etxera ez itzultzeko erabakia ziurgabetasun handiz hartu nuen, ez bainekien zer gerta zitekeen”

“Polonian egindako hir gelditzen naiz; ez konfi

EIDER OCHOA | erasmus-a Polonian

Eider Ochoa derioztarrak Marketin ikasketak amaitu berri ditu Politeknika Ikastegia Txorierrin. Erasmus+ programaren bidez, martxoan Poloniara abiatu zen praktikak hango enpresa batean egitera eta COVID-19ak eragindako krisiak bertan harrapatu zuen. Europako herrialdean ia hiru hilabete eman ondoren, maiatzaren amaieran Txorierrira itzuli zen, maletan nekez ahaztu ahalko duen esperientzia ekarrita.

edo farmaziara. Drogeriak ere zabalik izan ziren.

Eta deskonfinamendua?

Lehenengo eta behin, kirola egiteko baimena eman zuten, ordutegi barik, eta gero, kalera ateratzeko baimena. Guk pen-

tsatzen genuen kaleak jendez beteko zirela, baina ez zen horrela izan: nik esango nuke poloniarrek, oro har, erantzukizun handiz jokatu dutela. Beste aldetik, bertan maskara hasiera-hasieratik erabili genuen, eta edozein gauza egiteko.



u eguneko bidaiarekin namenduko egunekin”

Poloniara praktikak egitera joan zinen. Zein enpresatan izan zinen? Zein zen zure lana?

Arteari lotutako enpresa batean. Margolarientzako eta bildumagileentzako egitasmoa da eta dena Internet bidez egiten da. Esate baterako, enpresaren aplikazio baten bidez, bildumagileek margolari baten lana ikus dezakete, edo baten batek euren bilduma erosteko interesik duen. Ni langileetako bati gizarte-sareetarako estrategiak lantzen laguntzen ibili nintzen, baina enpresan bertan aste eta erdi baino ez nuen eman, etxean gelditu behar izan genuelako. Etxealdian, langileentzako buletina egiteko ardura eman zidaten, eta, halaber, Interneten gauzak bilatzen laguntzen nien.

Zergatik erabaki zenuen Erasmus programa Polonian egitea?

Ikaskide bat egona zen Polonian, eta esan zidan oso ondo zegoela: alde batetik, merkea zen; eta bestetik, lagun asko ibiltzen ziren bertan Erasmus-a egiten. Bada, horregatik.

Nola baloratuko zenuke esperientzia?

Desberdina izan da. Praktiketan oso esperientzia ona izan dut: lankideak oso jatorrak izan ziren eta hori oso inportantea da niretzat. Gero, hiru eguneko bidaia egin genuen eta leku asko bisitatu genituen: ni hiru egun horiekin gelditzen naiz; ez etxealdiko egunekin. Azkenean “Erasmus normal bat” apur bat bizi izan dudala uste dut.

Etorkizunaz pentsatu duzu?

Ez asko. Datorren ikasturtean Irakasle-eskolan hasiko naiz, marketina interesgarria iruditzen zaidan arren, umeekin lan egin nahiago dudalako.





POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Larabide Heziketa eta Sigueren Irakasleentzako Ikastetxea

Unitzaga Ibaia Kalea, 1
48160 - DEIO
Tel.: 94 403 40 50
Fax: 94 403 40 51
info@txorierri.net
www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioko Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produksioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industriako Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

EUSKO JAURLARITZA
EKONOMIA ERAGIKORTASUNAREN
ETA ADARREKIN DUELA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONOMICO E INFRAESTRUCTURAS


40 urte, milaka txori

Tabakoaren, edo hobeto esanda, nikotinaren onurei buruzko teoria asko entzun ditugu konfinamendu garaian. Ikerketak egon dira, baina ez dute inon demostratu tabakoa erretzeak birusetik babesten duenik; bai, ordea, tabakoaren eraginez biriken funtzioak kaltetzen direla, eta horrek, jakina, zaildu egiten du gorputzak gaixotasun horren eta beste batzuen aurka borrokatzea. Tabakoaren kontsumoa, gainera, kutsakorak ez diren beste gaixotasunen arrisku-faktore garrantzitsua da (gaixotasun kardiobaskularrak, minbizia, diabetesa...), eta gaixotasun horiek dituzten pertsonen arrisku handiagoa dute sintoma larriak garatzeko, COVID-19ak eragiten badie.

Tabakoa saihestu daitekeen heriotza-kausa nagusia dela jakin arren, Euskal Herriko Unibertsitateak parte hartu duen "Covid-19aren eta konfinamenduaren ondorio psikologikoak" ikerketaren arabera, konfinamenduan kontsumoak gora egin du kontsumo moderatuetan.

Nerabezaroa funtsezko garaia da adizioak sortzen dituzten substantziak kontsumitzen hasteko, eta garai horretan hasi ohi dira gaztetxoak tabakoarekin esperimentatzen. Gizarteak, gehiago edo gutxiago, onartzen duen droga bat da, eta horrek eragin handia dauka, baita etxeko ereduak eta lagun-taldeak ere. Nerabeek

Tabakoaren lilura

arrazoi askorengatik senti dezakete tabakoarekiko erakarpena: euren burua ondo ikusteko, nagusiak bailiran jokatzeko, pisua galtzeko edo taldeko kide sentitzeko.

Nola hasten da adizioa?

- Jakingurak bultzatuta erretzen duzu lehen zigarroa, taldeko kide izateko ...
- Handik gutxira, zigarro bat piztu ezean zerbait falta zaizula konturatzen zara.
- Ohartzerako, ohikotasunez erretzen ari zara, eta gaizki sentitzen zara zigarro bat edo bi bakarrik geratzen zaizkizula ikusten duzunean.
- Berehala, ezin zara tabakorik gabe egon, erritualak berak nikotinak besteko adizioa sortzen baitu.

Zer egin dezakegu familiok?

- Gaiari buruz hitz egin, gaztetatik arriskuen berri izan dezaten.
- Autoestimua sustatu. Hori da tal-

deko presiotik babesteko biderik onena. Erretzea kaltegarria den jardueretan parte hartzea animatu eta bizitza ohitura osasungarriak garatzen lagundu, adibidez, jarduera fisikoa.

- Taldeko presioari erantzuteko moduez mintzatu.
- Agian, ondo sentituko dira "EZ" esanda, baina beste erantzun batzuk irakatsi ahal dizkiegu, esaterako, "Ez zait usaina gustatzen".



a: foxnews.com

Jai parekideen alde!

Pandemiak gogor kolpatu gaitu eta, horren ondorioz, udalek jai ofizialak bertan behera utzi dituzte. Hortaz, 2020ko jaiak ez dira beti bizi izan ditugun jaien antzerakoak izango, horren zalantzarik ez dago, baina horrek jai-giro ezberdin bat ekarriko digu. Jaiak txikiagoak izan beharko dira, herriko jendearentzat pentsatuak, eguneko ekintzek pisua irabaziz eta osasun neurriak zorrotz errespetatzeko antolatuta. Horregatik, libre gozatzeko garaian gaude. Erasorik eta horiek sustatzen dituzten jarrerarik gabeko jaiak nahi ditugu. Betiere, berdintasunezko harremanak nahi ditugu jai-giroan, emakumeek gozatu eta ondo pasatu ahal izateko, inork haien segurtasuna eta eskubideak urratu gabe. Beraz, gure herrietan jai libreak eta parekideak sustatu behar ditugu.

Tamaina handiko hondakinak

Koltxoi bat, altzari bat edo etxetresna elektriko bat erosten baduzu, eskatu saltokiari edo banatzaileari zaharra eramateko. Bideragarria ez bada, erabili doako zerbitzu haue-takoren bat:

- Eraman itzazu zuk zeuk Garbigunera: hurbilena Derion dago, antzinako seminarioaren sarreran. Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era eta 15:30etik 18:00etara; eta zapatuetan, goizez.
- Eskatu udalari eramateko: hondakin horiek asteazkenetan batzen dira, lehen orduan; jaieguna bada, martitzenean jasotzen dira. Deitu udaletxera aldezturik eta utzi tresnak (asteaz 3 gehienez ere)

zure etxeko atariaren edo sarreraren ondoan.

Zerbitzu horien bidez, osagaiak bererabil edo birzikla daitezke, eta modu jasangarrian tratatuko dira.

Ez utzi tamaina handiko gauzak edo tresnak edukiontzien ondoan, eta ez bota mendira. Hainbat gauza saihestuko dituzu horrela: kutsadura, irudi txarra ematea, gure berdeguneak zabortege bihurtzea eta balizko isuna jasotzea.

Edukiontzi horia: ontzi arinentzako edukiontzia da

Erabilera bakarreko platerak, edalontziak eta plastikozko mahai-tresnak, hau da, erabili eta botatzekoak, ez ditugu edukiontzi horira bota behar: ezin dira be-



- Etxean tabakoa debekatzen duten arau zorrotzak ezarri eta esaten duguna guk ere bete.

- Gurasook erretzen badugu, onar dezagun akats bat egin genuela erretzen hasita, eta argi utzi, atzera egin ahal izanez gero, ez genukeela egingo.

- Horretaz gain, erretzeari uzten saia gaitzke. Gure osasun-zentroan laguntza jaso dezakegu, osasun-langileena eta erretzeko ohiturak uzteko taldeena.

Zer egin dezakegu jadanik erretzen hasi badira?

- Hasteko, ahalegindu ez haserretzen. Hobe da eraginkortasunez komunikatzean arreta jartzea.

- Lortu jakitea zer gustatzen zaien tabakoari buruz eta gaiari buruz zintzoki hitz egin.

- Etxean ez erretzeko araua irmotasunez bete eta ez utzi gure aurrean erretzen.

- Gogorarazi tabakoaren epe laburreko arriskuak eta ondorioak (diru gutxiago, hortz horiak, hats txarra ...), eta epe ertainekoak eta luzekoak (kirol errendimendurako zailtasunak, usaimen galera eta gaixotasun larriak).

- Animatu erretzeari uztera, konponbideak bilatzera eta, beharko balute, adi-tuen laguntza eskatzera.



Euskaraldia: norbanakotik kolektibora

Aurten, Euskaraldiaren bigarren edizioa jarriko da martxan azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean. Euskaraldiaren xedea hizkuntza ohiturak aldatzea da, herritarren artean euskararen erabilera areagotu dadin. Horretarako, herritarrek, ahobizi ala belarriprest rola aukeratuz, egun jakin batzuetan zehar euskaraz aritzeko konpromisoa hartu beharko dute.

Ekimen hau 2018. urtean gauzatu zen lehen aldiz eta Euskal Herri osoan 225.000 lagunetik gorak hartu zuten parte. Txorierrin ere 2.500 pertsona aritu ziren ahobizi edo belarriprest modura hizkuntza ohiturak astintzeko ariketa sozial honetan.

Baina aurtengo edizioak berrikuntza garrantzitsua dakar: norbanakoez gain entitate ezberdinetako taldeek ere kolektibo bezala Euskaraldian parte hartzeko erabakia hartu dezakete, eta ARIGUNEAK sortu. Entitateak era guztietakoak izan daitezke: erakunde publikoak, dendak, tabernak, lantegiak, kirol-taldeak, elkarteak... Izena emateko, arigunerik ote duten aztertu beharko dute. Ariguneak euskaraz lasai aritzeko guneak dira. Arigune izateko lehenengo baldintza kide guztiek euskara ulertzea da. Bi motatako ariguneak egongo dira:

Barne-ariguneak: Barne-funtzionalitateko guneak dira, adibidez, lan taldeak edo sailak. Kideen % 80 parte hartzeko prest egon behar da.

Kanpo-ariguneak: Herritarrekiko harreman-guneak dira, adibidez, telefonoa edo harrera-lekuak. Kasu honetan, arreta euskaraz jasotzea uneoro bermatuko da.

Entitateek irailaren 27ra arteko epea izango dute ariguneak identifikatzeko eta izena emateko. Argibide gehiagorako euskaraldia.eus web orrian sartu eta bertan eman ahal izango dute izena.

Txorierrin aurten ere bagabiltza lanean, eta eskualde osorako koordinatzaile bat dabil herri-batzordeak dinamizatzen laguntzen. Denok dakigu Euskaraldiaren oinarria herri-batzordeak direla, eta batzorde horietan erakundeez gain edozein elkarte, zein norbanakok parte har dezake. Batzordeek euren herriko egoerara egokitu behar dute Euskaraldia eta Txorierrin jadanik batzorde horiek martxan daude.

Euskararen erabilerarekin kezkatuta bazaude, zure herriko batzordean parte hartzera gonbidatzen zaitugu, bai norbanako gisa, bai zure elkartearen izenean. Horretarako txorierr@euskaraldia.eus helbidera idatzi edo 688 813 748 telefonora deitu dezakezu (Itziar). Zure zain gaude.

edo altzariak

reskuratu; errefusaren edukiontzira bota behar ditugu. Plastikozkoak badira, baina ez erabili eta botatzekoak, Garbigunera eramane beharko ditugu.

Hauk bota behar dira edukiontzi horira:

- Aluminiozko latak, ontziak eta aluminio-papera.

- Elikagaien poliespanezko erretiluak (kortxo zurizko erretilu txikiak).

- Film gardena.

Hauk EZ dira bota behar edukiontzi horira:

- Latexezko eskularruak: errefusarako edukiontzian utziko ditugu.

- Plastikozko kutxak, kuboak eta tupe-rak: Garbigunera eramango ditugu.

Zertan datza dinamika?

Aiartza: Gaur egungo egoeraren aurretik jadanik esaten genuen kapitalismoaren krisi estrukturalak agerian zeudela; orain argiago geratu dira eta, gainera, azkarrago doaz. Shock-egoera honek aukera berriak ekarri dizkie eliteei, beraien klase-interesak indartzeko. Irakurketa horretatik abiatuta, Salto! dinamika ipini dugu martxan, saldu nahi duguten "normaltasun berria" ez dugulako nahi, eta horren aurrean aldaketarako indarrak berrindartzeko, kapitalismoa bideraezina dela inoizkorik argien orain geratu baita. Norabide horretan, gazteon perspektibatik, dinamika hauetan datza: gako ideologiko argiak eskaintzean, alternatiba bat badagoela sinestaraztean eta, hori egikaritzeko, kaleak berreskuratzen hastea.

Zeintzuk dira dinamikaren ardatz nagusiak?

Aguayo: Lehenik, marko politiko bat jarri nahi dugu erdigunean, kapitalaren eta bizitzaren arteko dikotomia, krisia kapitalak ordaindu behar duela ozen esateko, eta gure bizitza erdigunean jarri behar dela. Eta bigarrenik, askatasunak, gure herrietan ikusi dugunez, polizia-kontrola eta autoritarismoa areagotu direlako "normaltasun berriaren" aitzakia. Horren harira, frantziar eta espainiar gobernuen birzentralizazioa ikusi dugu, baita EAJ-ren eredu autonomikoaren iruzurra ere. Horren aurrean, bizitza duinak eraikitze-ko egitasmo independentista azkartzea ere funtsezkotzat jotzen dugu. Azkenik, indartzen ari den bloke eraldatzailearen baitan euskal gazteria lehen lerroan kokatu nahi dugu.

Zuen ustez, COVID-19ak sortutako krisiak agerian utzi ditu aurretik bazenuden krisi batzuk, esaterako, zaintzari lotutakoa.

Ag: Osasun-krisiak zaintzaren garrantzia utzi du agerian. Sektorea, ordea, merkatuaren logikapean dago, eta erabat ezegonkorra izateaz gainera, erabat feminizatuta eta arrazializatuta dago. COVID-19ak arlo hau kolapsatu egin du: eskolak itxita, esaterako, umeen zaintza etxeko eremu pribatura pasatu da eta horrek arazoak sortu ditu familia askotan. Etxeko zein zahar-etxeetako zaintza-langileen egoera ere larritu du, eta, hortaz, gure ustetan, zaintza-lanak aitortzea, duintzea eta eremu pribatutik publiko-komunitarioa pasatzea funtsezkoa da. Bestetik, eta

"Euskal gazteria bloke era lehen lerroan kokatu n

TXOMIN AIARTZA ETA OLAIA AGUAYO | Larrabetzuko Ernai

Ernai gazte antolakundeak Salto! dinamika aurkeztu du COVID-19ak agerian utzi dituen krisiei kalean erantzuteko. Aiartzak (eskualdeko arduraduna) eta Aguayok (bozeramailea) dinamikaren gakoak azaldu dituzte.



ekologia-arloari dagokionez, itxialdian biral egin dira herrietara jaitsi diren animalien irudiak eta horrek gizakiaren gehiegizko jarduna azaleratu du. Gutxi batzuen etekin ekonomikoa helburu, baso asko suntsitzen eta ustiatzen ari dira, konfinamenduan ere bai: AHTa egiten jarraitu dute, milioika euro publiko xahutuz eta 500 urteko baserri bat eraitsiz.

A: Bestalde, azeleraziorik handiena ekonomia-krisian da. 2008ko krisiaren "susperraldia-edo" herri- eta langile-sektoreen kaltetarako izan da eta neoliberalismoan gehiago sakondu da: pribatizazioak, murrizketak... Honela, gehiengoaren prekarizazioaren ondorioz,

ordutik hona gutxi batzuk aberatsago egin dira. Konfinamenduan, prekarizazio-prozesua azkartu da -ERTEak, kaleratzeak, saltokiak ixtea...-, eta krisiari emango zaion irtenbidea ere norabide horretatik joango dela aurreikus daiteke. Amazon,

"Kapitalismoa bideraezina dela inoizkorik argien orain geratu da"

Idatzailearen ahi dugu"

Glovo eta Netflix moduko enpresek irabaziak asko handitu dituzte, eta galerak izan dituzten enpresa handiak, aurreko krisian egin zuten moduan, kapitalismoaren arau batez baliatuko dira: irabaziak badaude, pribatizatu; eta galerak badaude, publiko bihurtu. Egoera ekonomikoa, beraz, azken urteetako ilunena izango da, eta klaseen arteko polarizazioa asko handituko da.

Espainiar eta frantziar estatuen birzentralizazioa aipatu duzue lehen.

A: Lurraldeari lotuta, osasun-krisiak estatu bien benetako aurpegia erakutsi digu berriro: nazio-ukazioa, birzentralizazioa eta inposizioa. Modu zentralizatuan eta autoritarioan autonomiei konpetentzia kendu eta erabakimena bere egiteko, Madrilek ezkutuan ezarritako 155 artikulua horren adierazlea da. Horrekin batera, Gernikako Estatutuaren iruzurra ere geratu da agerian. Estatu handi horiek nazio zapalduontzat inolako eskaintza demokratikorik ez dutela argi ikusi dugu.

Krisiaren errudunak sistema eta gobernu dira, zuen iritziz. Zergatik?

Ag: Sistema eta gobernu, edo estatu, ez dira bi elementu independente, estatu liberalak sistemaren txotxongiloak baitira. Gaur egungo instituzioak ez dira herritarrak babesteko egin, kapital handia babesteko baizik. Hori konfinamenduan ikusi dugu, izan ere, birusak gogor kolpatu duenean, beharrezkoak ez ziren zenbait enpresak lanean jarraitu dute gobernuaren oniritziz.

A: Krisiaren eragilea birusa izan dela esango digute, baina benetako erroa eredu ekonomikoan, politikoan eta sozialean dago. Egia da birusak egoera kaltetu duela eta eragina munduko eredurik perfek-

tuenean ere izan lezakeela, baina ez da berdina osasun-krisiari Kubakoa bezalako osasun-sistema batekin edo etengabeko murrizketak jasotzen dituen beste batekin aurre egitea; etxebizitza-eskubidea bermatzen duen estatua izatea edo ez, edo langileen osasuna eta segurtasuna irabazien gainetik jartzea edo ez. Krisiak sistemak berak sortzen ditu, eta, halaber, haietaz baliatzen da kapitala metatzen jarraitzeko. Kapitalismoaren historia krisiz beteta dago, eta gaur egungoa beste bat da, egungo eredu elite batek bere interesak handitzeko egin duelako, langileen kalterako.

Zein ekintza eraman eta eramango duzue aurrera dinamikaren harira?

A: Ekainaren hasieran kale-agitazioa eta markaketa hasi genituen. Egoera aztertzeke nazio mailan antolatutako hainbat solasalditan izan gara, eta Sondikan hitzaldi-solasaldi bat egin genuen krisiak gazteengan izango dituen ondorioak aztertzeke. Kaleak berreskuratzeari dago-kionez, herrialde mailako hainbat ekimen eta mobilizazio egin ditugu –Bilbokoa eta Negurikoa kasu–, eta datozen asteetan ere horretan jarraituko dugu. Uztailaren 14an, Larrun mendira igoko gara Euskal Herria banatu duen muga inposatuaren aurka egiteko, eta Txorierrin ere ekimen desmuntatzaile bat egingo dugu egoeraren larritasuna azaleratzeko eta borrokarako dei egiteko.

Ag: Udan jardun politiko bat aurrera eramateak dituen zailtasunez jabetuta, erritmoa mantsotuko dugu datozen bi hiletan, baina krisia ordaindu behar dutenak zeintzuk diren adierazteko ekimenak ditugu buruan. Azkenik, zera esatea, Sortuk eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deitutako mobilizazioetan ere parte hartu dugula. Etxean ia hiru hile pasatu ostean, askoren haserreareagotu da eta orain da inoizkorik beharrezkoena haserrearen antolatzea bizitza berri bat eraikitze-ko. Gazteok lehen lerroan egongo gara.

"Gaur egungo instituzioak ez dira herritarrak babesteko egin, kapital handia babesteko baizik"

"Orain da inoizkorik beharrezkoena haserrearen antolatzea bizitza berri bat eraikitze-ko"



ASTIKENEMOTOR
www.astikenemotor.com
DERIO - 946 451 781



- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak
- Kaxolak
BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55



ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Uribe kalea, 12 beheka Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47



KAFETEGIA
IAZI
JATETKEA
Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56



LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai jarrai Facebooken



LOREGARBI
GARBIKETA ZERBITZUAK
Garbi-ikusiak, orokorrean
Azukoren konbinatuak
Maurizteko garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Oltza emateko garbitasunak
Bastorak
Zabor biltzea
Besalde Plaza, 1 - B* Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93



Ana Apika



Josu Camara

Kultura, erabat geldituta

Koronabirusak ondorio larriak ekarri dizkigu hainbat arlotan: osasuna, industria, merkataritza, garraiobideak... Eta kultura. Sektore horretako lagunak kezkatuta daude, beste esparru batzuetan gertatu den moduan, "dena geldituta dagoelako". Ana Apika eta Josu Camara aktoreen, Gotzon Barandiaran kultur-eragilearen eta Arkaitz Hormaetxe Baga Biga produkzioak enpresako kidearen testigantzak jaso ditugu kulturgintzaren egoeraren berri izateko.

t: Gaizka Eguzkitza

"Ederra egin zidan koronabirusak! Izan ere, udaberrian eta batez ere martxoan lan pila nuelako: saio batzuk, Emakumeen Egunaren eta Liburuaren Egunaren haritik; beste batzuk, Bilboko liburutegietan; beste batzuk, institutuetan; beste batzuk, Txorierriko eskoletan... Guztira 22 saio bertan behera utzi behar izan nituen. Guztiak kontratupean, baina ez dira egin eta, ondorioz, ez ditut kobratu. Batzuek esan digute atzeratuko direla, baina, nire ustez, saio asko eta asko ez dira egingo", dio Ana Apika aktoreak. Ana Larrabetzun bizi da aspalditik eta 25 urteko eskarmentua du agertokian: klowna, ipuin-kontalaria...

Lana ez ezik heziketa ere alferrik galdu du larrabetzuarrak. "Urtean zehar, hitzordu garrantzitsu bi ditut: Durangoko Topaclown eta Bartzelonako Circ Cric jaialdiak. Beste pailazo batzuekin elkartzen naiz bertan eta elkarri erakusten diogu lana. Ezinbestekoa da besteek zer egiten duten ikustea. Oso aberasgarria da, izugarri ikasten dut jaialdi horietan, baina aurten bertan behera gelditu dira, noski".

Anak etxean lan egiteko ohitura dauka, baina bere hitzetan, itxialdia "zorarena" izan da. "Gogorra izan da eta ume txikiak ditugunontzat, are gogorragoa. Arreta gutxi jarri ahal izan diot lanari eta lankideen baldintzak ere ez dira batere lagungarriak izan: biak dira irakasleak, eta biek dituzte ume txikiak. Bakarrik bideo batzuk grabatu ditut, online plazaratzeko", adierazi du Apikak.

Uda etorri da eta garai honetan larrabetzuarrak ez du lan handirik izaten; ondorioz, oporrak hartzen ditu. "Valentziara joateko asmoa genuen, bikotekidea bertakoa baita eta gurasoak ikusi barik sei hilabete baitaramatza. Hala ere, azkenean ez dakit zer egingo dugun, lan egin behar du dudalako. Ez dakit, esaten dute udan

*"Kezkatuta gaude,
ez dakigulako
krisia noiz arte
luzatuko den"*

*"Aktoreena lan
obsesiboa da. Hala ere,
lanik ez dagoenez,
perspektiba galdu
dut apur bat"*

*"Egoerak
atzerapausoa ekarriko
dio antzerkigintzari,
eta ez dut uste laster
berreskuratuko dugunik"*

zerbait egingo dela, baina AEDA Ahozko Kontaketaren Profesionalen Elkartearen kidea naiz eta haiek aipatu dute 2021era arte ez dela lanik egongo. Kezkatuta gaude, ez dakigulako krisia noiz arte luzatuko den".

Perspektiba galdu

Josu Camara aktoreak ere sufritu ditu itxialdiaren ondorioak. "Martxoaren 14an, *Martin Zalakain* antzezlan estreinatu behar genuen, baina ezinezkoa izan zen. Eta ez da bakarra izan: beste antzezlari batzuk eta ematen nituen tailerrak ere bertan behera gelditu dira". Lanari dagokionez, lezamarrak esan du kezkatuta dagoela.

"Gurea lan obsesiboa da, erabat murgildu behar zara pertsonaiarengan. Hala ere, lanik ez dagoenez, perspektiba galdu dut apur bat".

Camararen hitzetan, itxialdiaren hasiera "traumatikoa" izan zen. "Fase ezberdinak gainditu ditut etxean geundela: hasieran, oso txarto, eta denboraren poderioz, gizarte mailako arazoa zela konturatu nintzen eta horrek larritasuna ekarri zidan: informazio pila zegoen, batzuetan kontraesanez bete, beste batzuetan erabat aldakorra, irudi tamalgarri batzuk ikusi ditugu... Eta ni zoriontsua naiz, baserri batean, bailara zoragarri batean bizi naizelako, eta ortutik-eta mugitu ahal naizelako".

Lezamarrak hainbat urte eman zituen Kukubiltxo antzerki taldean eta hori desagertu zenetik, lanean jarraitu du. Itxialdian, orain dela urte bi mahai gainean zuen proiektu bat lantzea erabaki du. "Gotzon Barandiaranek idatzitako *Hildako haurra* bakarriketa hasi naiz prestatzen. Ez dakit noiz eramango dudan agertokira, baina gutxienez, testua lantzen dudan bitartean, sasoia ez galtzea espero dut".

Lezamarrak "laino artean" ikusten du etorkizuna. "Dei batzuk jaso ditut, baina ez dakigu ezer: protokoloek antzerkietan eta ikuskizunetan zelangoa arauak ezarriko dituzten, jendearen erantzuna, hau da, antzerkietara itzultzeko prest egongo den ala ez... Dena dago ilun. Egoerak zalantza barik atzerapausoa ekarriko dio antzerkigintzari, eta hori gertatzen denean, uste dugu laster berreskuratuko dugula, baina normalean ez da horrelakorik gertatzen: 2008ko krisialdian baldintza batzuk galdu genituen eta ez ditugu horiek oraindik berreskuratu. Eta hemendik aurrera, ziur, asko gutxiago programatu da, gutxiago ordaindu, antzezlari txikiagoak izango dira...".

Hala ere, Camara ez da erabat ezkorra eta itxaropentsu ere agertu da "egoera

*"Gure kultura-industria
ahula da eta, horrela
jarraituz gero,
ez du iraungo"*


*"Kultura etekinari
dago lotuta; gainera,
politikariek bakarrik
hartzen dituzte
erabakiak. Hori
onartezina da"*

larrietan sormena pizten delako". "Espero dut kulturak formula berri bat asmatzea, 0 kilometroko kultura edo horrelako zer-bait: hau da, jendea tokian tokiko ikuski-zunak eta artistak ikustera joatea. Ez dakit hori bateragarria izango den erakunde publikoek kudeatzeko erarekin, baina tira", esan du aktore lezamarrak.

Euskal kulturgintza, ahul

Gotzon Barandiaranek uste du euskal kulturgintzak beste kolpe latz bat jaso duela. "Batzuok aspalditik ibili gara salatzzen gure kultura-industria ahula dela eta, horrela jarraituz gero, ez duela iraungo. Hainbat eragileok hartzen dugu parte euskal kulturgintzan eta guztien artean ekosistema antzeko bat osatzen dugu: herri eragileak, erakunde publikoak, profesionalak –argitaletxeak, diskoetxeak...–, komunikabideak –premiatzkoak, dena zabaltzeko–, hezkuntza –bai gurasoak, bai eskolak– eta bezeroak edo kontsumitzaileak. Elkar elikatzen dugu", esan du Larra-betzuko sortzaileak.

Barandiaranen ustez, arazoak daude ekosistema horren alde guztietan. "Sortzaileon lan-egoera eskasa da, askotan kontraturik ez dugulako. Azken batean, oso zaila da babes juridikorik gabe lan egitea. Era berean, eskoletan, kulturaren transmitizioa ez dago bermatuta; eta euskaraz lan egiten duten komunikabideek gero eta dirulaguntza eta publizitate gutxiago ematen dizuete, eta gaztelaniaz egiten dutenei, aldiz, gero eta gehiago. Horiek adibideak baino ez dira, baina argi



eta garbi uzten dute ekosistema ahula dela".

Barandiaran idazlea eta kulturgilea da. Guztira, bost liburu eman ditu argitara 2004tik 2018ra bitartean. Gainera, beste lan batzuk ere egin ditu: Bihotz Bakartien Klubaren (BBK) eta Katamalo taldearen partaidea izan da; Berri Txarrak taldeko agentea; eta Durangoko Azokaren lantaldean ibili zen 2011tik 2013 arte. "Koronabirusak dena gelditu du, hainbat proiektu bertan behera gelditu direlako. Ez dakigu udazkenean aurrez aurreko ikuski-zunak itzuliko diren: agian birtualak izango dira, baina horretarako, baldintzak eta aurrekontuak moldatu egin beharko dira...", esan du larrabetzuarrak.

Besteei gertatu zaien moduan, Gotzonentzat ere gogorra izan da itxialdia. "Etxean egon behar izatea ez da erraza

izan, ezin izan diogu arretari lanean eutsi, testuingurua ez delako izan lagungarria: batzuek familiakoak –bai umeak, bai nagusiak– zaindu behar izan dituztelako; beste batzuek, gehienok, diru-sarrerarik izan ez dugulako. Eta oro har, euskarak kolpe ederra hartu du denbora-tarte honetan: erakunde publiko batzuek argi erakutsi dute euskara bigarren mailako hizkuntza dela; ikasle batzuek erabat galdu dute eskolan euskararekin zuten harremana, eta horrek eragin zuzena izango du kulturgintzan...".

Barandiaranen esanetan, egoera horrek agerian utzi du kulturak arazo bi dituela. "Batetik, kultura etekinari dago lotuta; eta bestetik, politikariek bakarrik hartzen dituzte erabakiak eta hori onartezina da, nork ideologia jakin baten arabera erabakiko baitu. Euskal kulturgintzaren



Arkaitz Hormaetxe

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



NOIZ	HELBURUA	ORDUTEGIA	ORDU KOPURUA	IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA
Irailaren 3tik 25era	B1 B2 C1	8:30 – 14:00	85 eskola-ordu	Uztailaren 30a
Irailaren 14tik 25era	MINTZAMENA	Hiru ordu egunero	30 eskola-ordu	
Irailaren 7tik 25era	B2 C1 Euskaltegietan ibilitako ikasleentzat	Bi ordu egunero		

**MATRIKULA
ZABALIK
INFORMA
ZAITEZ**

ekosistemaren kideok elkartu behar egin genuke. Eta gizarte mugimenduek aspal-ditik antolatzen dituzte ekintzak burutu, nork bere herrian, baina gero eta zailagoa da herrialde bakoitzean erakunde publikoek era ezberdin batean kudeatzen dutelako. Ez dakit, guk Larrabetzun gutxienez, zerbait antolatuko dugu udan".

Urte sabatikoa

Arkaitz Hormaetxek Baga Biga Pro dukzioak enpresan egiten du lan eta hainbat musika talde kudeatzen dituzte bertan. Zamudioztarrak bat egin du besteek adierazi duten kezkarekin, koronabirusak bere arloan eragin "zuzen-zuzena" izan duelako. "Bost langiletik, lau gaude aldi baterako enplegu-erregulazioa espedientearen barruan. Gainera, kontratatuta genituen kontzertu guztiak bertan behera gelditu edo atzeratu egin dizkigute: guztira, 200 saio. Zorionez, askok esan digute datorren urterako egingo dituztela. Laburbilduta, ia urte sabatikoa izango da aurtengoa", esan digu.

Uda garai ona da musika taldeek zuzeneko kontzertuak eskaintzeko, baina aur-

"Udalek ez dute udan zuzeneko musikarik programatuko. Beraz, lanaren % 2 baino ez dugu egingo"

ten aurreikuspenak ez dira oso onak, Hormaetxeren esanetan. "Udan, egia esan, ez dugu ezer antolatzeko ia aukerarik izango. Udalek, oro har, ez dute zuzeneko musika programatzeko gogorik. Zorionez, gutxi batzuek bai, zerbait egiteko asmoa adierazi dute. Eta, horiei esker, zerbait antolatu ahal izango dugu, normalean egiten dugunaren % 2 gutxi gorabehera".

Hala ere, Arkaitzek denbora libre aprobe txatu du proiektu berriak planifikatzeko. "Itxialdiaren lehenengo egunetan ezin nuen lana burutik atera: ez nekien etorkizunean zer gertatuko zen eta formula berriak pentsatzen ibili nintzen, musika taldeak kudeatzeko. Horrek urduri

jarri ninduen hasieran, baina apurka-apurka lasaitu egin nintzen; pentsatu nuen ezin nuela ezer egin eta datorrenari aurre egingo niola. Eta bete-betea asmatu nuen, burua freskoa izatea lortu dudalako. Ondorioz, datorren urteari begira proposamen berriak pentsatu ditut, bai enpresarako, bai musika taldeentzat".

Proiektu berriak bai, baina berrikuntza handirik, ez, ordea, zamudioztarraren hitzetan, "musika arloan dena edo ia dena asmatuta dagoelako". Hormaetxek adierazi du itxialdian Interneten bidezko musika edo *streaming*-a garrantzitsua izan dela. "Tresna txukuna da, baina ez etorkizuna delako, baizik eta osagarri ona delako normalean egiten diren kontzertuetarako".

Baga Bigako kideak azpimarratu egin du kulturak duen garrantzia. "Euskal Herrian lagun asko mugitzen dira kulturaren inguruan. Eta batez ere itxialdian argi gelditu da funtsezkoa dela: esate baterako, terrazetan bat-bateko emanaldiek lagun du egin digute guztiok bizi izan dugun egoera zaila –etxean sartuta, kalera atera ezinik, familia zuzenean ikusi barik...– hobeto kudeatzen".



GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

BABESPEKO APARTAMENTUAK

600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

EGONALDIAK EGOITZEAN

egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com



BERBALAGUN

Euskaraz berba egiteko eta bultzatzeko taldeak

Ikasi

Lagundu

Ondo pasa

MINTZATU!!!

Erabili

Berbaz berba bidea EGITEN

Eman izena! 635.75.35.95 edo txorierri.berbalaguna@gmail.com

Antolatzailea:





Ahalegintxoa, mundua salbatzeko

Lehen sektorea behar-beharrezkotzat jo zen alarma-egoeraren hasieran, eta baserriarrek egunero ibili ziren lanean, herritarrok itxialdian oinarrizko beharrianak bete ahal izateko, hau da, guk zer jan izan genezan. Une latzetan tokikoak funtzionatzen duela argi utzi dute eta, hortaz, 0 kilometroaren garrantzia azpimarratzeko momentua da. Martin Uriarte LORRA Bizkaiko nekazarien eta abeltzainen kooperatibaren zuzendari-kudeatzaileak argi du zioa: alde batetik, gizarte-erantzukizunagatik; eta bestetik, ingurumena zaintzeko.

t: Itxaso Marina Ondarroat

“Lehenengo eta behin, supermerkatuak eta dendak tokiko produktuez hornitzeko, lehen sektoreak egin duen lana aintzat hartu behar da”, esan digu Uriartek. “Bestetik, aipatu beharra dago Horeca kanala –hotelak, jatetxeak eta kafetegiak– itxteak kaltetu zituela azpisektore batzuk, hala nola, txakolingintza eta sagardogintza, Idiazabal jatorri-deiturako gazta, nekazaritza ekologikoa eta produktuak batez ere ostalaritzara eta kontsumo-taldeetara bideratzen dituzten ekoizle txikiak; gainera, eskola-jantokiak itxi izanakin ere eragina izan du azken horietan”. Uriartek azaldu digunez, konfinamenduan,

banatzaile nagusiek tokiko produktua kontsumitzeko konpromisoa hartu zuten, baina banatzaileek Euskal Baserri jatorrizko berme-markako produktuak eskatu ohi dituzte, eta ez Eusko Label berme-markakoak. Ondorioz, eta adibidea ipintzearen, piper labelduna Euskal Baserrikoa balitz bezala saldu behar izan zen, eta prezioa ia % 35 merkatu zen.

Ekoizleek produktuak ateratzeko moduak topatu behar izan zituzten, eta askok onlineko salmentaren alde egin zuten. Horrela, orokorrean fakturazioa murriztu zen arren, onlineko salmenta hirukoiztu egin zen itxialdian. Ekoizle batzuek euren kabuz saldu zuten, baina BBK Azoka eta Hermeneus moduko plataformak asko

erabili ziren online saltzeko. “Idiazabal gaztak, bestalde, heren batera murriztu ditu salmentak, eta batzuek gazta hutsean bilgarriratzea erabaki zuten gero saltzeko. Arkumeen sektoreari dagokionez, gobernuak hitzarmenak egin zituen kooperatibekin merkatuan zegoen produktua sal zedin, eta okela orokorrean ondo saldu bazen ere, Horeca kanalera bideratzen zen txuletoia saldu ahal izateko, batzuek onlineko eskaintzak egin behar izan zituzten, baita txuletoia hanburgesa bihurtu ere”. Aipatutakoez gainera, landetxeak eta landare apaingarriak ekoizten dituzten enpresak ere kaltetu ditu COVID-19ak eragindako krisiak.



*“0 kilometroko
produktua beste
edozein produktu
baino askoz
jasangarriagoa da”*

*“Administrazioak
lehen sektorea sektore
estrategikotzat
hartu behar du”*

Alarma-egoera ezarri zuenean, Espainiako Gobernuak ezinbestekotzat jo zuen lehen sektorea eta, itxialdian, nekazariak eta abeltzainak egunero ibili ziren lanean dendak eta supermerkatuak 0 kilometroko produktuekin hornitzeko. “0 kilometroko produktua tokiko produktua da. 0 kilometroko produktua beste edozein produktu baino askoz jasangarriagoa da: zure kontsumo-gunetik zenbat eta gehiago urrundu, hainbat eta erregai fosil gehiago beharko da produktua hona ekartzeko, eta horrek kalte egingo dio ingurumenari. Guk hau esaten dugu: eskura Lezamako tomatea baduzu, esaterako, ez erosi Marokokoa. Azken hori merkeagoa izango da, beharbada, baina 1.700 kilometro egin behar izan ditu hona ailegatzeko; ondorioz, atmosferara CO2 kantitate handia isuri da. Gainera, produktua zein lan-baldintzatan ekoiztu den ere hartu behar dugu kontuan, izan ere, langileak

lan-kontratu barik eta abar ibiltzea izan daiteke, adibidez”.

Jasangarriagoa eta klima-aldaketa gutxitzen lagungarria izateaz gainera, 0 kilometroko produktua gure baserritarren bizimodua da. “Gure lehen sektoreak bizi-rik jarraitzea nahi badugu, tokiko produktuen alde egin behar dugu. Horri lotuta, azpimarratu behar da baserritarrak ingurunearen kudeatzaileak direla, gu jateko hornitu ez ezik ingurune naturala –mendiak-eta– zaindu ere egiten baitute”.

Uriarteren esanetan, badirudi aurreko lerroetan adierazitako mezua sartu egin dela gizartean, ekoizleek kooperatibaren arduradunei esan diete-eta tokiko produktuen salmenta handitu dela. “Nire ustez, pandemiak herritarrok ingurune naturalarekin ahalik eta gehien bat egin da bizi izatea ekarriko du: dena gelditu denean naturak izan duen erantzuna ikusi besterik ez dago. Espero dezagun tokiko

produktuen aldeko jarrera iragankorra ez izatea, baina, iragarri duten moduan, osasun-krisialdiaren ostean ekonomia-krisia badator, zaila izango da. Hala ere, baldintza-berdintasunean eta antzeko prezioak egonda, nahiz eta tokiko produktua apur bat garestiagoa izan, argi izan behar dugu 0 kilometroko produktua erosiz gero mundua salbatzeko gure ahalegintxoak egiten gabiltzala”.

LORRA kooperatibaren zuzendari-kudeatzaileak aipatu duenez, administrazioak lehen sektorea sektore estrategikotzat hartu behar du. “Bi arrazoiengatik: jateko hornitzen gaituelako eta lurraldea kudeatzen duelako. Beraz, administrazioak baserritarrek ordezkoa izatea bermatu beharko du, baita nekazaritza-aktiboak izaten jarraitzea ere. Eta nekazaritza-aktiboak izateko modu bakarra da baserritarrek euren produktua sal dezatela. Orain dela urte batzuk Nirea egitasmoa ipini zen martxan eta lortu zen banatzaile handiek tokiko produktuari lehentasuna ematea; Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek oraingo honetan ere familia-baserritarren aldeko politika publikoak sustatu beharko dituzte”.



Bainuak, hitzordupean

Derioko igerilekuak uztailaren 1etik irailaren 6ra bitartean egongo dira irekita, baina edukiera mugatuarekin. Guztira, hiru ordutegi ezarriko dira: 11:00etatik 13:45era, 14:00etatik 16:45era eta 17:00etatik 19:45era. Murrizketek eragina izango dute abonuen prezioan. Horrela, bada, uztailan, abuztuan eta irailean % 50eko beherapena egingo da udako abonuan: familiako abonua 35,85 euro balioko du, eta banako abonua, 25,60 euro. Gainera, nahi duenak hiruhilekoaren ordainketa eteteko eskatu ahalko du kiroldegian. Bestalde, aurreko urteetan legez, udako igerilekuetarako abonua erosteko aukera egongo da, baina ez da eguneko sarrerarik salgai ipiniko.

Beste aldetik, eta udako igerilekuetan ezarriko diren murrizketak direla eta, Derioko Udalak eguzkitan egoteko gune bi atonduko ditu: bata, Uribe parkean; eta bestea, Ganbeko atzeko aldean, udal-txotik hurbil. Udalak seinaleak ipiniko ditu gune bietan eta zaintze- eta garbitze-lanak egingo ditu. Halaber, arau batzuk bete beharko dira: ezin izango da mahairik ipini eta debekatuta egongo da sua edo barba-koak egitea.

Larrabetzuko igerilekuak ere irekiko dira, udalak ekainean adierazi zuen moduan. Igerilekuen edukiera % 60koa izango da eta txanda bi egongo dira: 11:30etik 15:30era eta 16:00etatik 20:00etara.

COVID-19 birusaren eragina esparru guztietan da nabarmena eta udal-igerilekuak ez dira salbuespena izango. Derion, Larrabetzun eta Zamudion zabalik egongo dira, baina guztietan hitzordua eskatu beharko da aldezturik, bertan sartzeko. Gainera, murrizketak egongo dira edukierari dagokionez. Sondikan lanak egin nahi dituzte eta aztertzen dabilta igerilekua irekiko duten ala ez.

Lehenengo txanda hasi baino lehen eta lehenengo eta bigarren txanden artean, desinfektatze-lanak egingo dira. Igerilekuetara bakarrik abonatuak sartu ahalko dira –hau da, ez da eguneko sarrerarik salduko– eta aurretiko hitzordua eskatu beharko da 944 558 276 telefono-zenbakira deituta.

Hitzordua eskatzen denean, igerilekuetara joango diren pertsonen izen-abizenak eta bazkide-zenbakia jakinarazi beharko dira. Halaber, igerilekuetara sartzeko, ezinbestekoa izango da txartela erakustea. Txanda bakoitzean 80 lagun egon ahalko dira eremu osoan, baina haien artean metro biko tarte utzi beharko dute. Pertsona bakoitza bakarrik txanda batean sartu ahalko da igerilekuetara, eta 12 urtetik beherako umeak pertsona heldu batekin egon beharko dira. Bestalde, igerileku txikian 10 ume izan ahalko dira aldi berean, eta igerileku handian, 30

Legeak adierazten duen moduan, igerileku guztiek % 60 murriztu behar izango dute edukiera

pertsona. Bestalde, ate batetik sartuko da gunera eta beste batetik irtengo da. Alda-gelak itxita egongo dira eta ezin izango da hamakarik eta aulkirik jarri.

Era berean, Zamudioko igerilekua uztailaren lehenengo astean irekiko dute. Hori erabiltzeko, erreserba egin beharko da Adi Zamudio aplikazioaren bidez. "Erabiltzaileek aukera izango dute hurrengo lau egunetarako lekua hartzeko, hau da, gaur domeka bada, astelehenetik egue-nera bitartean hartu ahal izango dute hi-



tzordua. Eta norbaitek aplikazioan lekua dagoela ikusiko balu, igerilekuetara hurbildu ahalko litzateke erreserbarik egin barik", esan digu Igotz Lopez alkateak.

Erreserba egiteko, txanda bi ezarri dituzte Zamudion: 11:00etik 15:00etara bitartean; eta 16:00etatik 20:00etara bitartean. Lehenengo txanda hasi baino lehen eta lehenengo eta bigarren txandaren artean, desinfektatze-lanak egingo dira. Komunak erabili ahal izango dira, baina aldagelak, ordea, ez. Edukierari dagokionez, % 60 murriztu behar izan dute eta guztira 395 lagunentzako lekua egongo da. Abonuak tarteka-marteka salduko dira: lehenik eta behin, kiroldegiko bazkideei; gero, Zamudion erroldatuei; gero, Txorierrin erroldatuei; eta azkenik, kanpokoek. Familiako abonua 30,90 euro balioko du eta indibidualak, 27,85.

Sondikakoa, itxita

Azkenik, Sondikako igerilekua itxita dago eta momentuz horrela jarraituko du. Udalak lanak egin nahi ditu aldagelatan eta horrek eragina izango du igerilekuetan. "Lanak aurten egin nahi ditugu eta, horretarako, izapide administratiiboak dagoeneko ditugu martxan. Azkenean lanak esleitzen baditugu, horiek uztail amaieran hasiko dira eta hilabete bitan amaituko dira, urriko ikastaroak hasi baino lehen. Hori gertatzen bada, igerilekuak lanak hasi arte irekitzeko asmoa dugu; eta lanak hasten direnean, igerilekuak itxi", esan digu Xabier Zubiaur alkateak.

Erabiltzaileen hitza

Ana Larrabetzun bizi da eta udaro erabiltzen du herriko igerilekua. Aurten, aldiz, baldintzak aldatu egin dira, baina bera ziur dago igerilekua erabiltzen jarraituko duela. "Gu besteek alde egiten dutenean joaten gara, eguerdian, eta oso gustura gaude igerilekuan, ia inor ez dagoelako. Izugarri gustatzen zaizkit Larrabetzuko igerilekuak, lasaiak direlako. Ni lehen Bilbon bizi nintzen eta ez dago alderik", esan digu.

Anak ondo ikusten ditu udalek jarritako neurri zorrotzak. "Normala da, kutsatzeko arriskua oraindik badagoelako. Herriko jendea beldur da, eta ez dakit zer egingo duten, ez dakit igerilekua erabiliko duten ala ez... Guk erabiliko dugu, freskatzeko aukera ederra ematen duelako", aipatu du.

Ainhua zamudioztarra da eta bera urtero joaten da herriko igerilekuetara. "Eguraldi ona zein txarra egin, gu egunero joaten gara umeekin eta han kuadrillakoekin batzen gara. Igerilekua da uda pasatzeko herriak duen plan bakarra, eta hemen gaudenok bertan biltzen gara, Zamudioko topalekua da (kar, kar)", esan du Ainhoak.

Zamudioztarrak uste du neurri zorrotzagoak hartzea "zentsuzkoa" dela, baina zalantzan jarri du zelan jarriko diren martxan. "Ondo deritzot aldagelak



ixteari, azken orduan zikin-zikin egoten dira-eta. Txanda aukeratu behar dela eta hitzordua aldeztu aurretik hartu behar dela? Ez dut problemarik, baina nor ibiliko da erabiltzaileen atzetik, neurriak betetzen ditugun ala ez begiratzeko? Herritarrok arduraz jokatu behar dugu, esate baterako tabernetan gizarte-distantzia ez dugulako mantentzen. Igerilekuan urrutitik hitz egingo dugu? Ez dakit nik: ohitura aldatzea zaila da".

Sondikan, momentuz, itxita dago igerilekua eta egunero erabiltzen dutenak ez daude batere pozik. Horietako bat Itxaso da. "Noraezean geratzen gara, beste aukera bat ez dugulako. Ni egunero joaten naiz igeri egitera eta nirekin batera zenbait lagun etortzen dira. Guztiok egiten dugu igeri osasunerako behar dugulako: batzuk nagusiak dira, beste batzuek sorbaldako mina dute... Esan nahi dut behar-beharrezkoa dela guretzat", adierazi du.



Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3. 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34



Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*

“Taldearen lehentasuna jokalariai dira”

t: Itxaso Marina Ondarroa / a: Derio FT

Ibarluzea eta Gana Derioko Emakumezkoen Futbol Taldearen zuzendaritza-batzordeko kideak dira. Taldea hurbil-hurbiletik ezagutzen dute, hainbat urtetan bertako jokalariai ere izan direlako. “Emakumezkoen futbola bultzatzeaz gainera, familia polita osatzen dugu: jokalariai zaintzen ditugu, guretzat eurak baitira garrantzitsuena. Txorierrin, emakumezkoen futbola ahalik eta kategoria gehienetan egotea nahi dugu, neskek umetatik, eta euren kirol-ibilbide osoan, futbolaz nahi beste disfrutatzeko aukera izan dezaten”.

Zuzendaritza-batzordeko kideek adierazi dutenez, taldearen lehentasuna jokalariai dira eta, hori dela eta, hainbat zerbitzu dute eskura, hala nola entrenatzaileak, fisioterapeuta eta doako arropa eta materiala. “Bestalde, Athleticekin hitzarmena dugu eta horrek aukera asko ekartzen dizkigu: Athleticeko partiduetarako sarrerak, mediku-arreta, kirol-materiala, ikastaroak...”. Derion ibilitako jokalariai bat ere Athleticeko Emakumezkoen Lehen Mailan dabil jokatzeko: Leia Zarate. “Bere ibilbideaz harro gaude. Halaber, Athletic C taldeko Oihane Calvo gurekin ibilitakoa da, baita Athleticeko bigarren taldeko Sara Barbosa ere”.

Ibarluzearen eta Ganaren esanetan, talde deriotarraren indargunea laguntza da. Ziur asko, ezaugarri hori taldearen filosofiararen ondorioa da. “Elkarren arteko errespetua, elkar zaintzea, konpromisoa, lehiakortasuna, laguntasuna... Guztiok etxeko sentitzen gara: taldean sartzen zaren unean senitarteko bihurtzen zara.

*“Txorierrin,
emakumezkoen
futbola ahalik eta
kategoria gehienetan
egotea nahi dugu”*

DERIOKO EMAKUMEZKOEN FUTBOL TALDEA

Futbol taldea 2004an eta 2005ean jaioako jokalariai bila dabil, Lurraldeko Lehen Mailan dabiltzan lehen taldeaz gainera, 2020-2021 denboraldirako kadete mailako taldea sortzeko asmoa baitute. “Futbola eta lagunarteaz gozatzeko eta kirola egiteko konpromisoa duten neskek behar ditugu”, esan digute Ainara Ibarluzea Leizak eta Ainhoa Gana Dañobeitiak. “Harrobi polita sortzen gabiltza etorkizun oparoa izan dezaketen neskekin. Emakumezkoen futbola sustatu nahi duten nesken beharra dugu!”.

Era berean, taldea utzi ondoren, askok zuzendaritza-taldean edota entrenatzaile ibiltzeko hautua egiten dute, edo jarraitzaile moduan segitzen dute. Horrek gure filosofiarekin jarraitzeko indarra ematen digu, guztiak etxeko sentiarazteko eta taldeko partaideak beti izateko”. Are gehiago, Derioko Emakumezkoen Futbol Taldea ez da futbol-talde soilik. “Gai sozialak

– feminismoa, LGTBQ+, arraza, aniztasun funtzionala... – hartzen ditugu aintzat eta egunerokotasunari begira izaten gara beti, gure hondar-alea jartzeko”.

Alde ona ateratzen

Datorren denboraldiari begira, bigarren aldiz kadete mailako taldea osatzea dute helburu. “Derioko Emakumezkoen

Historia

Derioko Emakumezkoen Futbol Taldea duela 10 bat urte sortu zen. Garai hartan, neska askok jokatzeko zuten futboleko, baina batez ere eskola-kirolean. “Askok nesken futbol-talde batean parte hartu nahi zuten arren, zaila zen. Hori dela eta, guraso batzuk batu ziren eta 2011n CD Derio femeninoa sortu zuten, alabek Txorierrin futboleko jokatzeko jarraitzeko aukera izan zezaten. Jokalariai zaindu behar zirela ohartu ziren, eta hurrengo urteetan ere futboleko jokatzeko parada eman behar zitzaizela. Horregatik, urterik urte ibili ziren lanean, zuzendaritza-taldea eta entrenatzaileen taldea apurka-apurka jokalariai ohiok osatu ditugun arte. Guk bere sorreratik ezagutzen dugu taldearen filosofia eta badakigu jokalariai zer eskaini. Horren ondorioz,

jendeak gure taldean lehiatzea erabaki du, lagun-giroan”.

Taldea Euskal Ligara igo zen 2017an eta maila horretan ibili zen denboraldi bitan; iaz, ordea, Lurralde Mailan aritu ziren Derioko jokalariai. “Lehenengo taldeen artean sailkatu ginen. Lurralde Maila bitan zatituko da aurtengo eta gure Lurraldeko Lehen Mailan jokatzeko dugu, epe laburrera Euskal Ligara bueltatzeko helburua dugu”. Helburua betetzeko, talde aberatsagoa eraikiko dute, ahulguneei aurre egiteko irtenbideak topatuko dituzte eta indar guztiak indartuko dituzte. “Oso proiektu polita dugu datorren denboraldiari begira. Gure harrobiari berritoki ere indarra ematea ezinbestekotzat jotzen dugu, eta horregatik aterako dugu kadete mailako taldea, neska futbolariak Txorierrin hezten jarrai dezaten, etorkizuna eurak izango baitira, eta gu, horren lekuko”.



“Taldea oso aukera polita da futbolaz gozatzeko, lagunarte onean lehiatzeko eta elkarrengandik ikasteko”



Futbol Taldea oso aukera polita da futbolaz gozatzeko, lagunarte onean lehiatzeko eta elkarrengandik ikasteko. Ezagutu gaitzazu eta ez zara damutuko: oso giro ona dago, barreak egingo ditugu, lagunak... Etor zaitez gurekin jokatzera, zure zain gaude eta!”. 2004-2005 urteetan jaiotako neskak taldearekin harremanetan ipini daitezke. Horretarako, 685 796 838 telefono-zenbakira deitu dezakete, edo deriofemenino@gmail.com helbide elektronikora idatzi. “Taldea gizarte-sareen bidez ezagutu dezakete: @derio_femenino (Instagram) eta derio.femenino (Facebook)”.

Bizitzaren beste esparru batzuetan egin duen moduan, COVID-19ak kirolean ere izan du eragina, eta hortaz, Derio-ko taldean. “Baina egoerei aurre egiten ohituta gaude eta, Bizkaiko Futbol Federazioaren neurriak errespetatuz, emakumezkoen futbola sustatzen jarraituko dugu eta egoera bakoitzetik alde ona aterako dugu. Datorren denboraldian, beharbada, baliteke ligaren hasiera atzeratzea eta lehiaketetan aldaketak egotea”. Derio-ko neskek martitzenetan eta eguenetan egiten dituzte entrenamenduak: kadeteek, 18:45etik 20:00etara; eta nagusiek, 20:00etatik 21:30era. “Horrela, talde biek elkar ezagutzeko aukera dute. Era berean, entrenamenduen ordutegiak kirola eta lana edota ikasketak uztartzea ahalbidetzen die jokalariei, futbola kirola egiteko, burua eguneroko arduretatik urruntzeko eta lagunartean disfrutatze-ko tarte bilakatuz”.

Peñasko
arraindegia



Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

RADIO TAXI FEMADE *Zure taxi, Teorienika*

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h **94 480 09 09** 

ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertoblbao.com

DESCARGA APP-A



TAXI FEMADE

a: Berbalagun

Ezohiko moduan esan diogu agur ikasturteari, baina COVID-19a egon arren, berbalagunok euskara praktikatzeko eta euskaraz bizitzeko jarraitu dugu. Horrela, konfinamenduan teledeiak egin ditugu eta ahal bezain laster berriro batu gara maskara jantzita eta gure artean segurtasun-tartea utzita. Ohiko agur-afaria egiteko ere batu gara eta gogora ikasturte honetan euskaraz egindako hainbat ekintza eta irteera ekarri ditugu: mendi-irteerak, Otxandiora perretxikoetara joatea, Sorrollaren eta Zuloagaren lanak ikusteko Bilboko Arte Ederretara irteera, labasua Lekerikaren baserrian, Rialia industria-museora irteera... Gainera, gurasoak eta seme-alabak Gurasolagun egitasmoaren baitan batu dira eskulanak, margolanak eta hainbat ekintza egiteko. Udako geldialdiaren ostean, guztiok indarrak berrituta itzuliko gara hurrengo ikasturteari eta pandemiak ekarriko dizkigun erronkei gogotsu heltzeko. Bitartean, zaindu zure burua eta ondoan dituzunak, urrian berriro ikusi nahi zaituztegu eta.

Datorren ikasturtean, gehiago eta hobeto





**berba
lagun**

telefonoa:
63575 35 95

e-maila:
txorierri.berbalaguna@gmail.com

antolatzaileak:
TOTOAN TEEF
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea



**merezi
duzun
herria**

ehbildu



m

**MADDALEN
IRIARTE
OKINENA**

**egiteko
prest.**

maddalen

ZURE LEHENDAKARIA

Lurgida, Euskal Herriko barne-turismoa sustatzeko app-a



Jabi Asurmendi Udalbiltzaren presidentea eta Lomia Arcas batzorde eragileko kidea

a: Udalbiltza

Udalbiltzak Lurgida aplikazioa aurkeztu berri du. Aplikazioa batez ere furgoneten eta autokarabanen erabiltzaileei zuzenduta dago, eta Euskal Herriko ondare inmateriala eta ibilbide tematikoak batzen ditu. Halaber, baserrien eta ekoizleen gida jaso da bertan.

Lurgida aplikazioak Euskal Herriko barne-turismoa bultzatzea du helburu. Sustatzaileek adierazi dutenez, gailu mugikorretarako aplikazioak Euskal Herria beste modu batean ezagutzeko aukera ematen die barneko zein kanpoko bisi-

tariei. Aplikazioa eskuragarri egongo da Android eta iOS gailuetarako eta www.lurgida.eus webgunean, eta lau hizkuntzatan garatu da: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez.

Lurgidak turismo jasangarria eta lurraldearekiko adeitsua bultzatu nahi du, eta, bide batez, tokiko ekonomiarako tresna onuragarria izan. Horretarako, euskal lurraldeko ondare inmateriala eta historia zeharkatzen dituzten hamaika ibilaldi proposatzen ditu. Halaber, herrietako interes-guneen, historiaren, ohituren eta jaien gaineko informazioa eskaintzen du, eta baserrien eta ekoizleen gida ipintzen

*Turismo jasangarria
bultzatzeaz gainera,
tokiko ekonomiarako
tresna onuragarria
izan nahi du*

du erabiltzailearen eskura. Aurreko lerroetan esan moduan, aplikazioa gehienbat furgoneten eta autokarabanen erabiltzaileengan pentsatuta sortu da. Oporretara furgonetaz edo autokarabanaz joatea Europan oso errotuta dago eta, aplikazioari esker, bisitariek gaua Euskal Herriko udalerrri batean emateko aukera izango dute, eta baserritarrek euren produktuak ezagutarazi ahal izango dituzte. Horrela, 0 kilometroko kontsumoa sustatu nahi da, lehen sektorearekiko sentsibilizazioa eta ezagutza areagotuz.

CC lizentzia

Aplikazioan Euskal Herriko hainbat udalerriri buruzko informazioa bildu da eta, jakinarazitakoaren arabera, aurrerantzean ibilbide, etxealde, ondare eta informazio gehiago jasoko dira eta agenda-atala gehitzea aurreikusten da. Agendan Euskal Herriko hainbat kultura-ekimen jasoko dira. Bestalde, aipatu beharra dago aplikazioaren eduki guztiek Creative Commons lizentzia irekia dutela.

Udalbiltzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin garatu du egitasmoa, baita elkarte hauen laguntzarekin ere: Errigora, Euskarazko Wikipedia, EHKO eta IDOKI.

ITURRIGANE, 2
SONDIKA

EGUNERO
8:00-22:00

635584941

Sondigarbi
GARBITEGIA

Sendatu
Fisioterapia

Dulana Diaz Charry
elkargokide-zk. : 992

Arexalde, 68 behea
48196 LEZAMA

688 763 457



Gaztelania nagusitu zaio euskarari pandemia aldian

Elebitasunetik diglosiara

t: Juan Luis Goikoetxea / a: cdn.ticbeat.com

Artikuluaren izenburua ez du inork ukatuko, egia santua da-eta. Bata, gaztelania, menperatzaile izan da gizartean, eta bestea, euskara, menperatua. Hegoaldean, gaztelania izan da High hizkuntza eta euskara Low, konfinamenduko itxialdian elebitasunetik diglosiara etorri gara. Nola berreskuratu elebitasuna?

Honela idazten digu Jean-Louis Davantek HERRIA aldizkarian: "Elkartasun agurrak urrutiko Zuberoa naturalki konfinatu honetatik".

Berez, euskara ez da naturalki konfinatzen, norbaitek, zeozerk konfinatzen du. Onartzen dugu gaixoardiaren eraginez etxeratzea; ez, oster, euskararen bizitza publikoko geldialdia. Ez dugu ukatuko euskara beti egon izan denik prekarietatean, eta orain are gehiago. Garai zailak dira euskal munduan. Nondik etorriko dira autoetarako datozen moduko Renove planak? Geure instituziorik ez geneukanean, militantismoarekin eta konpromisoarekin egiten genion egoerari aurre. Orain badi-

tugu erakundeak, baina euskal mundurako emandako laguntzak hutsaren hurrengokoak dira. Bikaina da Euskaraldia, baina ortzadarra ez da soilik orlegia edo beilegia, baizik kolore guztien tegia.

Dena den, geure eskuak garbitzearekin ez da konpontzen arazoa. Gizarte zibilekook geuk hartu behar dugu lidergoa, goiko erakundeetatik euririk ez datorren unean, ubideak, ibaibideak, uraskak sortzeko. Gero erakundeek lankidetzara badute, geure bostekoa emango diegu. Beti ere, elkarlanean jarduteko.

"Kulturan -Joseba Barandiaranek BE-RRRIAN dioenez- barne kontsumoa da erabakiorra, kultura geu gara, eskaria geu gara". Gure irakurleak badaki euskarak komunitatea eratzen duena eta komunitateak euskara.

"Elebidunok euskaraz hitz egiten dugu horretarako borondatea daukagularako"-errepikatzen du Martxelo Otamendik. Euskal-borondate barik hizkuntza bi da-kizkiene ere, erraz alda daiteke gaztelaniera, astotik zaldira, Low hizkuntzatik High hizkuntzara.

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

lz

Txaribangorri, 2
ZAMUDIO
946 036 943

lle-apaindegia
estetika

 **Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Aireliza doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

 **OPTIKA IKUSLAN**

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

OAKLAND ENGLISH

LEHENDAKARI LEIZADIA PLAZA, 3
ZAMUDIO
946522857

PATXI KOOP

PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nafarroa-gerrikoa, 4. 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 522 087 - info@patxi.coop - www.patxi.coop

Kalabazin- eta garbantz- hanburgesa txikiak



a: sweetaddict.es

Osagaiak (lau lagunentzat):

- Kalabazin bat
- Garbantz egosien pote bat
- 1/2 kipula
- Berakatz-atal bat
- Perrexila
- Arrautza bat
- Ogi arraspatua
- 150 g gaztai arraspatua
- Gatza eta piperbaltza
- Oliba-orioa
- Uruna

Prestetako erea:

Kalabazina eta kipula garbitu eta txikituko doguz. Katilu batean ipiniko doguz gainerako osagaiak batera: garbantzua, arrautza irabiatua, gaztai arraspatua, oliba-orio apur bat, koilara-kada bi ogi arraspatu, berakatz, gatza, piperbaltza eta perrexila. Dana nahastuko dogu harik eta ore bat lortzen dogun arte. Orea ordu bian izango dogu hozkailuan. Ondoren, bolatxoak egingo doguz eta hanburgesa-itxurea emongo deutsegu. Alde bietatik prijiduko doguz.

Laranja- eta jogurt-madalenak

a: ar.cienradios.com

Osagaiak:

- 4 arrautza
- Limoi-jogurt bat
- Laranja baten ura
- 180 g orio
- 100 g azukre
- 200 g urun
- 12 g legamia
- Gatz apur bat
- Madalenak egiteko 10 molde

Prestetako erea:

Ontzi zabal batean arrautzak, jogurta, laranja-ura, olioia eta gatz apur bat ipiniko doguz. Osagaiak ondo nahasiko doguz, harik eta ore homogeneo bat lortzen dan arte. Ondoren, azukrea gehituko dogu, eta behegailu batek lagunduta, uruna eta legamia. Nahastauko dogu pikorrak desagertu arte, eta 10 minutuan itxiko dogu jalgiten. Azkenik, madalenak egiteko moldeetara ore botako dogu. Moldeak labara sartuko doguz 180 graduan eta bertan 20 minutu inguru izango doguz.



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Klomasajeri

**clínica dental
ZAINDUZ
hartz clínica**

Txiprent etorbidea, 9 - Lonsa | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalzainduz.com | www.dentalzainduz.com

ERREKA **ONDORIO**
JAT **ETXEA**

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Nire Autocasion NA

**IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA**

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Móbilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefona-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

tik tak


EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

T: 94 454 55 55
Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margo-tu eta moztu ahal dituzu.
a: www.turbulus.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Bahiketa* (Txalaparta), Asel Luza-rraga Zarrabeitia.
- Minotauro* (Alberdania), Txomin Peillen Karrikaburu.
- Sano erradikal* (Alberdania), Isabel Díaz.
- Xabier Lete. Aberriaren poeta kantaria* (Alberdania), Alex Gurru-txaga.
- Patuaren zurrunbiloan* (Erein), Iker Garcia Rike.

LITERATURA: GAZTEAK

- Ikusi duzu Elefante?* (Txalaparta), David Barrow.
- Gezurren habia* (Elkar), Jabi Elor-tza Antia.
- Gizajo baten egunkaria. Ihesaldia* (Alberdania), Jeff Kinney.
- Kobane calling* (Farmazia Beltza), Zerocalcare
- Zuhaitz bat* (Denonartean), Rodri-go Mattioli. Apila saria

Sudokua

		8						
2								
	1	9					6	
	9				4	2		5
5		7		8			4	
	6	4			1			8
1		6		4	2	7		
						8		
	7		1			6		

3	2	9	8	6	1	5	7	4
4	1	8	9	7	5	2	3	6
6	5	7	2	4	3	9	8	1
8	7	6	1	5	2	4	9	3
9	4	1	3	8	6	7	2	5
5	3	2	4	9	7	1	6	8
2	9	4	5	3	8	6	1	7
7	8	5	6	1	9	3	4	2
1	6	3	7	2	4	8	5	9

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldek one
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

–Especialitate guztiak zentro bakar batean
–Aurrekontua doan

–Especialitatea: umeak

Urte 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

ArtileArtean

Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz Berbetan: Maddi Ane Txope-renaren *Ene baitan bizi da* lana. Uztailaren 16an, 19:00etan, Hori Bai gaztetxean. Kultur Bilguneak antolatua.

Ikuskizunak

Sondika

- > Aire zabaleko zinema. Uztailaren 4an, 11n eta 25ean Gorondagane eskolan.

Derio

- > Auto-zinea. Uztailaren 10ean, 22:00etab, BMko aparkalekuan.
- > Carolina Noriegaren bakarrikzeta. Uztailaren 11n, 19:00etan, frontoian.
- > Zinema. Uztailaren 18an, 22:00etan, Lainomendi kalean; hilaren 24an, 22:00etan, Aralar eta Euskalerra kaleetako aparkalekuan.

Larrabetzu

- > Josu Camara ipuin-kontalaria. Uztailaren 14an 20:00etan, eskolako aterpean. Kultur Bilguneak antolatua.
- > Neskatoak Josu Abrilen dokumentala. Uztailaren 15ean, eskolako jantokian. Kultur Bilguneak antolatua.
- > Ana Apika ipuin-kontalaria. Uztailaren 19an, 20:00etan, eskolako aterpean. Kultur Bilguneak antolatua.

Irteerak

Derio

- > Familian egiteko mendi-irteera. Uztailaren 5etan eta 19an, frontoian.

Ekitaldi gehienek edukiera mugatua izango dute.
Ipini zaitez antolatzaileekin harremanetan

a: Josu Uribe



Lezama

- > Urdaibai. Uztailaren 11n, 08:30ean, herriko plazan. Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Europako mendiak. Uztailaren 30etik abuztuaren 3ra arte. Gailur mendi taldeak antolatua.

Kirola

Zamudio

- > Zamudioko VIII. Rallya. Uztailaren 10ean eta 11n, Zamudio Racing elkarteak eta Zamudioko Udalak antolatua.
- > Zamudioko XIV. Triala. Uztailaren 18an, 16:00etan, Zamudio Racing elkarteak eta Zamudioko Udalak antolatua.

Musika

Sondika

- > Musika-saioa. Uztailaren 18an, Gorondagane eskolan.

Derio

- > Duo Boleros. Uztailaren 17an, 19:00etan, frontoian.

Larrabetzu

- > Eneritz Furyak. Uztailaren 5ean, 20:00etan, eskolako aterpean. Kultur Bilguneak antolatua.
- > Sara Zozaya. Uztailaren 19an, 20:00etan, eskolako aterpean. Kultur Bilguneak antolatua.



ZAMUDION BERTAN GAUDE

Alberto Gainza:
691606715

info@baires.org.es
www.baires.org.es

LEJARRENE JATETXEA

Garaioitza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46





LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisolo 4, beheia B 634 410 470
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com



Goiri'78 s.l.

Zerbitzu ofiziala





Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31



MAYORISTAS INFORMATICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpamayoristas.com>

Konekta zaitez gurekin!



Facebook:
aikoraldizkaria



Twitter:
@Aikortxorierrri



Instagram:
aikor.aldizkaria



Webgunea:
www.aikor.eus



Zure argazkiak eta albisteak bidali




WhatsApp:
688 86 41 35



E-posta:
aikortxori@aikor.com

Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.



garaje **AURTENETXE**

www.aurtenetxe.es

NEKAZARITZA ETA LOREZAINTZARAKO TRESNERIA SALDU, KONPONDU ETA ALOKATZEN DUGU

STIHL

VIKING

Tillex-Mac

HONDA

Grillo

Kubota

agria

Cub Cadet



999
EUROTIK
AURRERA

LEZAMA

Aretxalde auzoa, 105
94 455 62 66
lezama@aurtenetxe.es

BILBAO

Autonomia, 57
94 427 29 18
bilbao@aurtenetxe.es

MUNGIA

Sogea ind, 34. pab
94 674 83 62
mungia@aurtenetxe.es